

JAKINGARRIAK

Aniztasunaren
trataera

kukuluma

JAKINGARRIAK

“JAKINGARRIAK” Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean kokatua dagoen Dokumentazio Zentroko informazio-tresna da.

Dokumentazio Zentroak, Eskolaren berrikuntza eta eskolaren euskalduntze prozesuan, lagungarriak izan daitezkeen materialak eskaini nahi ditu; horregatik, sortu eta bildu ditugun baliabideak honako irizpide hauen arabera dira:

- Irakaskuntza funtzionala ahalbidetzen duten baliabideak.
- Haurren zeregin aktiboa bultzatzen duten baliabideak
- Komunikaziorako eta elkarrekintzarako espazio aproposak sortzen dituzten baliabideak.

Dokumentazio Zentroak, irakasleen prestakuntzarako hiru baliabidetegi eskaintzen ditu:

- Haur hezkuntza (0-7 urte)
- Hizkuntzen didaktika
- Haur liburua eta Eskolako Biblioteka

“JAKINGARRIAK” aldizkarian eskaintzen diren materialak jasotzeko bide ezberdinak daude:

Kontsulta, gure Zentroa bisitatuz.

Fotokopiak: artikulua, dokumentu eta baliabide batzuk eskuratzeko bidea eskaintzen du.

Argitaratzailea: Mondragon Unibertsitatea. Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.

Laguntzailea: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Erredakzioa: Mondragon Unibertsitatea. Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. Dorleta auzoa z/g
20540 Eskoriatza

Tfnoa: 943-714157

Faxa: 943-714032

E.mail: liburutegia@huhezi.edu

Zuzendaritza: Nerea Alzola

Erredakzio Kontseilua: Pello Añorga, Xabier Arregi,
Mariam Bilbatua, Iñigo Ramirez de Okariz

Itzultzailea: Iñaki Mendiguren

Euskara zuzentzailea: Arantza Ozaeta

Idazkaria: Mari Karmen Apraiz

Azala: DIARA Diseinua
L.G.: SS-981/92

AURKIBIDEA

Berri bibliografikoak

- ☉ Liburu berrien albisteak 4. orr.
- ☉ Artikulu aipagarriak 5. orr.

Gai monografikoa:


Aniztasuna

- SARRERA 6. orr.
- ☉ Informazio iturriak: 8. orr.
- ☉ Maite Garcia:
Aniztasunaren Trataera 10. orr.
- ☉ Elkarrizketa:
Blanca Martínez de San Vicente 16. orr.
Hirune Iribecampos 18. orr.
Resu Abasolo 20. orr.
- ☉ Blanca Martínez de San Vicente, Jose Sarasua, Ana Rosa Laorden:
Aniztasunaren trataera Gasteizko “Rogelia de Álvaro-Luis Elejalde” ikastetxean... 22. orr.
- ☉ Artatse: Ikasteko Elkartea:
Ramón Flecha 33. orr.
Artatseko Lan taldea 35. orr.
Iñaki Gonzalez, Zigor Quintanilla 37. orr.

Baliabideak 38. orr.

Berri bibliografikoak

□ Liburu berrien albisteak



BASSEDAS, E.; HUGUET, T.; SOLE, I. (1998): *Aprender y enseñar en educación infantil*. Graó. Barcelona.

Liburu honek irakasteko eta ikasteko prozesua aztertzen ditu haur-hezkuntzan, lehenengo hilabeteetatik sei urtera arteko aldirian. Liburuaren egileek etapa horretako bi zikloen jarraitasuna eta aldiririk espezifikoenak azpimarratu dituzte, eta bi elementu horiek kontuan izanda eta ikuspegi konstruktibistatik, hezkuntza-lanerako garrantzi handia duten gaiak jorratzen dituzte: irakaskuntzaren oinarri psikopedagogikoa, etapako curriculum, antolaketa eta plangintza-gaiak, hezkuntza-lanaren zehaztapena, ebaluazioa, talde-lana, eskola eta familiaren arteko harremanak.

Lan honek hezkuntza-lana hausnartu, aztertu eta hobetzeko tresna izan nahi du; teoria eta praktikatik egindako lan honek ez ditu konponbideak ematen arazo konplexuetarako, hausnarketa eta jarduera-irizpideak baizik.

Kontsulta-liburua da, eta irakurlea —haur-hezkuntzako profesionala edo irakasleagaia— kapitulu jakin batera zuzenean edo hainbat puntutatik sar daiteke, eta ez nahitaez hasieratik.

Labur esanda, katalanetik itzultitako liburu honek zerbitzu ona egin diezaieke Haur Hezkuntzako profesionalari.

Eskertzekoa da bere oinarri teorikoa, proposamen serioak eta irekiak, eta haur-hezkuntza oro har kontuan hartzea, bere konplexutasun eta aniztasun osoan. Halaber, bibliografia ona eskaintzen du, gaika antolatuta. Interesgarria edozein ikastetxerentzat.

GARCIA MORIYON, F. (1998)

Crecimiento moral y Filosofía para niños

Bilbao: Desclée de Brouwer.

L1993an, Espainiako Haurrentzako Filosofia Zentroak I.C.P.I.C.-en Nazioarteko V. Biltzara antolatu zuen. Nazioarteko hainbat aditu bertan zela aprobe-txatuz, eta Biltzara hasi baino lehen, *Hezkuntza eta Garapen Morala* gaiaz Mintegi bat egin zen; parte hartu zuten adituen artean, besteak beste, Lipman eta Sharp zeuden, Haurrentzako Filosofia programa sortu dutenak.

Liburu hau Mintegi hartan aurkezturiko txostenek osatzen dute, eta obraren koordinatzailearen bi artikuluk, liburu argitaratzerakoan sartuak.

Haurrentzako Filosofia programak, errendimendu akademikoa hobetu nahiaren gainera, eskolaren papera berreskuratu nahi du oinarriko esparru gisa, egunen batean gure gizarteak benetan demokratikoak izatea lortzeko.

Honela, programak, hobekuntza kognitiborako tresna izateaz gain, hezkuntza moralerako bide da, bere maila guztietan sartzen duelako hausnarketa etikoa eta moralki hezitako pertsonaren ezaugarrien garapena.

Lan honen argitalpenak, hain zuzen, programaren dimentsio hori errebindikatu nahi du, baita hezitzaileen artean garapen moralari buruzko hausnarketa dinamizatu ere.

Zalantzarik gabe, liburu oso interesgarria da Haurrentzako Filosofia programa lantzen duten irakasleentzat eta eskolentzat, baina gainera uste dugu, egileen arteko batzuk bertan izatea, hezkuntza moralari buruzko hausnarketak, narrazioaren papera hazkunde afektibo eta moralean, irakasleen eginkizuna hazkunde kritiko horretan, gizarte zuzenago eta demokratikoagorantz planteaturiko dinamika, etab., liburu hau hezkuntzako profesional askorentzat erabilgarri egiten duten gauzak direla, eta horien artean gaude gu geu ere.



Artikulu aipagarriak

GOLDSCHMIED, E.: "La panera dels tresors", *Infància* 110, setembre-octubre 1999, pg. 11-15

"Altxorraren saskia" ume txikientzako baliabide aberatsa da. Tresna honek, eta zentzuen bitartez, autonomikoki esperimentatzeko eta hainbat galderari erantzuteko aukera paregabea eskaintzen dio umeari.

Goldschmiedereren proposamena ez da berria, autoreak berak orain dela 20 urte baino gehiago praktikan jarri eta baliabide horretaz idatzi zuelako. Urteak urte interesgarria da proposamen didaktiko hau berreskuratzea.

ENGEL, S.: "La narración durante los tres primeros años.", *Infancia* 59, enero-febrero 2000, pg. 6-14

Narrazioa, agian, esperientziak ordenatzeko giza sistemarik indartsuena da. Pentsaera narratiboa gure buruaz eta besteenaz ikasteko eta dakiguna adierazteko pentsamendu modu onena da. Artikuluak hainbat ikerketa aipatzen du ildo honetaz eta, aldi berean, narrazioa, kontaketa eta elkarrizketaren garrantzia azpimarratzen ditu.

Interesgarria.

"Infancia y crecimiento, ¿un binomio con trampa?, Aula 87, diciembre 1999, pg. 6-37.

Haurrak, nahiz eta helduok ez gura, gatazka eta minarekin kontaktuan daude. Haurrak, pentsatu baino gehiago, esperientzi sakonak eta galdera zortzak bizi dituzte hondo-hondoan. Monografiko honek gai hauek planteatzen ditu, eta hainbat proposamen praktikoko dakar hezitzaileentzat. Interesgarria, errealista eta anitza.

ALSINA, A.: "El nombre en la vida cotidiana", *Infancia* 111, noviembre-diciembre 1999, pg. 11-18.

Haur hezkuntzako lehenengo zikloan umea kantitate kontzeptua eta ahalmen matematikoa lantzen hasten da.

Autoreak hainbat orientabide eta baliabide eskaintzen digu, denak umearen inguru hurbilekoak, tresna didaktiko hauek pentsamendu matematikoaren estrukturak lantzeko lagungarriak direlarik.

DÍEZ, M.C.: "Las piedras preciosas", *Cuadernos de Pedagogía* 287, pg. 19-23

Harri bitxien inguruko proiektua, eza-guna den M.C.Díez maistraren eskutik. Proiektua, 4 urteko haurrekin egindakoa, sinplea da eta ohiko estruktura dauka. Gaia, Europako eskoletan sarritan ikusten dena, da azpimarratu nahi duguna. Ingurunearen ezagutza Haur Hezkuntzako umeentzat aberatsa dela eta baliabidez bete behar dugulakoan gaude.

LARA, L.: "Emilio Lledó", *Cuadernos de Pedagogía* 287, pg. 44-49

Elkarrizketa honetan Lledó filosofoaren gai errekurrenteak aurkitzen ditugu: irakurketa, liburuen eta klasikoen beharra, irakaskuntza publikoaren garrantzia, irakasle eta eskolaren eginkizuna, bizitzaren ikuspegi etikoa, pasio intelektuala. Beti interesatzen zaigu Lledóren hitza, hitz erreflexionatua eta kritikoa. Oso estimulagarria.

MARTINEZ, M.: "Las niñas y los niños pequeños ante la guerra", *Aula* 86, noviembre 1999, pg. 11-15

Haur Hezkuntza gizartearen aldeko baloreak lantzeko etapa oso proposada eta, horien artean istiluak era bakesuan konpontzea balore garrantzitsua da. Autorearen ustez, balore hori eriteko bideak, besteak beste, hauek dira: eguneroko bizitzak dakarren aberastasuna eta konplexutasuna, eta umeari fantasiak eskaintzen dion identifikazioa.

Artikulu polita.

Gai monografikoa

Aniztasuna

Orain dela urte batzuk arte Aniztasun hitza gutxi erabiltzen zen hezkuntzan; are gehiago, garai batean hezkuntzaren helburua horren aurkako kontzeptua zen, hau da, homogeneoa eta nola eutsi homogeneotasunari (gogoratu neskontzako eta mutilentzako eskolak, A, B, C erritmoko gela egonkorak, talde handietan eskola magistralararen dinamika metodologia bakartzat...). Orduan ere bazen Aniztasuna, gizakia munduan denetik baita Aniztasuna hemen, baina ukatu edo baztertu egiten zen.

Hezkuntzan Aniztasunari buruzko ikuspegi hori (edo hobeto esanda, ikuspeirik ez hori) estu lotua zegoen garaiko gizartemotarekin (ezin dugu ahaztu Eskola eta Gizartea binomio banaezin direla). Gaur egun, ordea, Aniztasunaz hitz egiten dugu gure gizarteak demokratiko eta pluralista definitzen duelako bere burua, eta ondorioz uste dugulako onartu egin behar dela gizakiak era askotako adierazpideak izatea eta horiek guztiak errespetatzea.

Baina aldaketa ideologiko-filosofiko-sozial guztiak denbora behar dute zertzeko. Eta Aniztasuna-

ren Trataera egokiak ere bai, noski. Trantsizio-aldi honetan, gainera, argitu beharreko ideia nahasi samarrak azaltzen dira edo, gutxienez, aztertu beharrekoak. Ekin diezaiogun:

1.- Aniztasunaren Trataera gaur egun ia ikastetxe guztietan eztabaidaturiko gaia da eta egoera paradoxiko samarrean dago: gure hezkuntza-“hutsune” guztientzat panazea gisa agertzen zaigu, eta oraintxe bertan horri erantzuteko eskatzen zaigu, baina horretarako baliabideak (giza, material eta antolaketak mailakoak) oraindik ez dira inola ere aski eta nahikoa.

Egoera honen aurrean, hezkuntzako profesional batzuek “aniztasuna” entzuten duten bakoitzean atzera egiten dute edo “kontuz” hartzen dute, behintzat.

Ulertu behar dugu edozein aldatetarako baliabideak egokitzeko, ideiak egokitzeko... denbora eskatzen duela, eta pazientzia izan behar dugu, **eta ez amore eman benetan sinesten badugu egiten ari garen edo egin nahi dugun horretan.**

2.- Nahastu egin dira aniztasunari erantzutea eta “ikasle

bakoitzari banaka erantzutea”, eta hori gaur gaurkoz ezinezkoa da, ezta desiragarria ere, bestearekiko elkarrekintzan ikasten baitugu. Agian ez dugu behar hainbat azpimarratu **dibertsifikatu egin behar dela hezkuntza-eskaintza**, horrela haur guztiak eta bakoitza “arretaz hartuta” senti daitezkeen aukera horietakoren batean.

Hau erabakigarria da Aniztasunaren trataera hobeto ulertze-



HELEN OXENBURY. *Palmas, palmitas*

Maite García

Mondragon Unibertsitatea
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea

ko eta gure helburua zein den garbi izateko: alferrikako eta oztopagarri diren frustrazioak saihestuko ditu.

3.- Irakasle batzuentzat Aniztasunarekiko harreman bakarra orain arteko Heziketa Berezia eta HPBak izan dira, ohartu gabe HPBak aniztasunaren beste adierazpen bat direla (ikasteko estilo, erritmo, gaitasun, garapen... anitzekin zerikusia duena) eta beste forma

askoren bidez ere adierazten dela aniztasuna: motibazio, jarrera, kultura, familia... mailan.

Puntu honi dagokionez, baliteke HPBekin zerikusi esturik ez duten profesionalek jaramon handirik ez egitea, ez baitute aniztasunarena "beren" ekintza-eremutzat hartu izan, nahiz eta ohiko ikasgelan aniztasuna handiagoa izan gela berezian edo laguntzakoan baino. **Aniztasunaren trataera hezitzaile guztien eginkizuna da.**

Idea hauek jorratzea lagungarri izango ahal da Aniztasunaren Trataera zer den hobeto ulertu ahal izateko! Izan

ere, nahi izan edo ez, hezkuntzako profesional guztiok gaude hor murgilduta, eta horri erantzun beharra daukagu, baina, noski, Administrazioari eskatuz eman diezazkigula beharrezko baliabideak (honetan laguntzen dute neurri handi batean baliabide horiek justifikatzen dituzten ikastetxe-proiektu berritzaileek).

Pedro Miguel Etxenik (T.U. Lankide, 99ko ekainean) "ULERTZEAK JAKITEAREN aurrean duen garrantzia" azpimarratu du: **aniztasuna zer den eta aniztasunaren trataerak zer eskatzen duen ulertzea da gero nola erantzun jakiteko atea irekiko digun giltza.**

Hiztegia

N.E.E. = HPB.

Necesidades Educativas Especiales
Hezkuntza Premia Bereziak

P.E.C. = IHP.

Proyecto Educativo de Centro
Ikastetxe Hezkuntza Proiektua

P.C.C. = IPC

Proyecto Curricular de Centro
Ikastetxe Proiektu Curricularra

A.C.I. = CEI

Adaptación Curricular Individualizada
Curriculum Egokitzapen Indibidualizatua

E.S.O. = DBH

Educación Secundaria Obligatoria
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza



Barcelona. Juventud, 1987

Informazio iturri


LIBURUAK

EUSKO JAURLARITZA (1996): **Lehen Hezkuntzan Aniztasunaren Trataerari heltzeko orientabideak.**
Gasteiz: E.J.ren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Eusko Jaurlaritzaren argitalpen hau funtsezko erreferentzia da Aniztasunaren Trataerari buruz. Hor Aniztasunari buruzko adigaiak eta printzipioak esplikatzen dira eta Derrigorrezko Lehen Hezkuntzan eman behar zaion erantzuna. Halaber, orientabide argi eta zehatzak ematen ditu curriculumaren hainbat osagaitatik gai horri heltzeko: helburuak, metodologia... Orientagarria eta laburra da.

• PUIGDELLIVOL, I. (1998): **La Educación Especial en la escuela integrada. Una perspectiva desde la diversidad.** Bartzelona. Graó argit.

Bere idazkera argi eta argigarriaz, Puigdemívol-ek liburu biribil honetan hausnarketa sakona eskaintzen digu Aniztasunaz eta Hezkuntza Bereziaz. Horretarako, erreferentzia labur batzuk ematen ditu bi adigai horien ibilbide historikoaz eta, batez ere, Aniztasunari buruzko ideiak ikertzen eta proposatzen ditu, nola ulertzen den Aniztasuna eta nola heltzen diogun gaiari (baliabideak, antolaketa...). Azkenik,



Elgoibarko
San Bartolome
ikastola

iak

aniztasunaren adierazpenetako bat jorratzen du: gaitasun eta erritmo-aniztasunarena, eta horri nola erantzun eskolatik.

Oso liburu gomendagarria da hezitzaile guztientzat, eta batez ere aholkulari, orientatzaile, laguntza-irakasle eta horrelakoentzat.

- JORDAN, J.A. (1996): *Propuestas de educación intercultural*. Bartzelona. CEAC argit.

Jordanek interkulturalitatearen gaia tratatzen duenean modu errealista, pragmatikoan egiten du, eta hezkuntza-egoera posible eta lorgarrian kokatuz. Gainera, gehienetan polemikoa den gai honetaz hausnarketa egiteko bide garrantzitsuak irekitzen ditu. Eta zerbait oso garrantzitsua azpimarratu behar da: bere ekintza proposamenak edozein motatako aniztasun-adierazpenetara estrapola daitetzke; gogoia eta zentzua, besterik ez da behar.

ALDIZKARIAK

- *“Educación en la diversidad”*, Cuadernos de Pedagogía, 212 zka., 1993.

Aldizkari honek azterketa sakonak egin izan ditu gai monografikoetan. “Educación en la diversidad” delako honetan azterketa eta gai-aukera zabala eskaintzen digu: filosofia eta balioei buruzko aldaketa, aniztasuna gizarte eta hezkuntza-mailan kontuan hartzea eramaten gaituena; aniztasun horri egoki erantzuteko baliabide metodologiko posibleak; erantzun hori sustatzen duten legezko planteamenduak... Informazio ona eta erabilgarria.

- *La ESO en la práctica*, Cuadernos de Pedagogía, 260. zka., 1997.

Monografiko honetan DBHko hezkuntza-mailetan LOGSE ematen ari dena aztertzen da. Azterketa

honekin, ezinbestean, aniztasunaren trataeraz berrikuspen kritikoa eskaintzen da, oso interesgarria eta ongi osatua. Nahiz eta DBHko berezitasunak dituen ardatz, oso irakurgai gomendagarria da hezkuntza-maila guztietako profesionalentzat, guztientzat oso komunak diren arazoak aurkitzen dira eta.

BIDEOAK:

- WGBH EDUCATIONAL FOUNDATION - ASOCIACION PRO DERECHOS HUMANOS DE ESPAÑA (1985): *Una clase dividida*.

Babeslea: Gizarte Gaietarako Ministerioa (Gizarte Ekintzarako Zuzendaritza Nagusia)

Bideo honen bidez, lehen irakaskuntzako ikastetxe batean duela hainbat urte egindako gizarte eta hezkuntza-esperimentazio baten berri ematen da. Bideoan aurreiritziek eta arrazismoak hauren hezkuntzan eta garapen sozio-pertsonalean duten eragina aurkezten da. Halaber, “Profezia Autobetearen” edo “Pigmalion efektuaren” ondorio psikologikoa ere ikusten dugu, giza eta hezkuntza-harremanetan hain aipatua dena.

Oso bideo gomendagarria da irakasleak ikasleari igortzen dizkion mezuei buruz eta horrek ikaslearen errendimenduan duen eraginaz hausnarketa egiteko.

- UNED (1993): *Aulas Versátiles*

Bideo honek aniztasunaren erantzuna ahalbidetzen duten antolaketa-aukerak aztertzen ditu. Batez ere, taldekatzeen gaia jorratzen da, horren kudeaketarako beharrezko baldintzak eta adibidetze praktikoenak.

Orientagarria da eta erreferentzi ona gero profesional bakoitzak bere errealiterara egokitu dezan.

Aniztasunaren

Maite García

Mondragon Unibertsitatea
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea

Aniztasunaren Trataera, gaur egun, gaurkotan handiko gaia da gure ikastetxeetan; LOGSEren iritsi zaigun "oparia" da; gaineko papera oso polita, baina barrukoa zaila. Izan ere, filosofia mailan oso irakurketa humanista du (desberdintasunarekiko begirunea), baina maila pragmatikoan bere zailtasunak ditu (baliabide dezente eskatzen du, eta antolamendu-aldaketa garrantzitsuak). Eta eszenatoki bikoitz honetan lan egiten dugu: batetik ilusioz eta bestetik estu eta larri.

Ideiak argitze aldera...

"Bai astunak aniztasunaren kontu honekin! Ez da, bada, atzo goizeko kontua!", diote batzuek. Jakina, arazo hori beti izan da gure artean, bizitza bera bezain zaharra baita. Baina normalean oso trataera jakina eman zaio: zapalkuntza, kontentsazioa... Horregatik komeni da argitzea **orain** Aniztasunaren Trataeraz hitz egitean, LOGSEren azpian datzan hezkuntza-filosofiarekin ari garela eta, noski, gaur egungo gizarte- eta kultur girotik (gizarte demokratiko eta pluralistatik).

...ANIZTASUNAZ...

ANIZTASUNA eta DESBERDINTASUN edo BESTELAKOTASUNA parekatzen baditugu, adigai edo kontzeptu horiek, testuinguru soziopolitikoaren arabera, era askotara uler daitezke: hainbat idiosinkrasiaren adierazpide gisa, edo gutxiengoaren, ezarritako ereduarekin bat ez datorrenaren adierazpide gisa. Alegia, Aniztasuna honela uler daiteke:

a) bizitzaren beraren adierazpen gisa: munduan ez daude bi sorkari berdinak. Desberdina eta bakarra izatea gizakiak berezko zerbaite du, pertsona bakoitzak bere-bereak dituen ezaugarriak baititu (bere genetika eta ingurugiroaren ondorio) eta berezitasun horiek izaki bakar eta errepikaezin bihurtzen dute.

Saint-Exúperyk bere "Bahituari gutuna" delakoan (Bartzelona, 1985. Hogar del Libro argitaletxea) honela adierazten du horren aberastasuna: "Zurekiko desberdina banaiz, zu zurriztu ordez, handitu egiten zaitut".

b) arauarekiko, ezarritakoarekiko desbideratzea: kultura, gaitasun, jarrera... aldetik, argi eta garbi gutxiengoarenarekin

bat eginez (normalean baztertuta edo berbideratuta izaten da).

... eta ANIZTASUNAREN TRATAERA:

Ibilbide historiko labur bat eginez, hezkuntza-arloan, aniztasuna ulertzeko moduaren arabera, eskola-mota jakin bat garatu izan da. Hiru eskola-mota aipatuko genituzke, eta aniztasunari erantzuteko hiru era:

1.- Eskola Hautakorra: Aniztasuna = Arautik (homogeneotik) desbideratzea

Desberdinak = sistematik baztertuta

2.- Eskola Integratzailea: Aniztasuna = Hezkuntza Bereziarekin identifikazioa

Desberdinak = laguntzarekin sistemara egokitu behar dute

3.- Eskola muinbakarra eta Aniztasuna: Aniztasuna = Errealitatearen adierazpide

Desberdinak = sisteman integratuta (guztiok baikara desberdinak)

Aitoritu behar dugu prozesu historiko hau ez dela lineala eta oraindik ez gaudela orokorrean hirugarren mota horretan. Horretarako zera asumitu behar dugu, LOGSEk dioen bezala: Hezkuntzaren egiteko nagusia **PERTSONAREN GARAPEN INTEGRALA** dela eta, beraz, zera **onartu** beharra:

- garapen hori desberdina dela pertsona batengandik bestearengana, bakoitzaren ezaugarri propioen arabera (kognitiboa, pertsonalak, sozio-kulturalak...)

- garapen-forma desberdin horien adierazpidea bermatu behar duela eskolak.

Aurreko hori ahalbidetzeko, Aniztasunaren Trataera **Muinbakartasunaren** eta **Aniztasunaren** printzipioek gidatu behar dute, batez ere.

Muinbakartasuna: ikasle guztiei oinarritzko hezkuntza-aukera berdina eskaintzea esan nahi du.

Aniztasuna: Ikasle guztiei era desberdinean erantzutea esan nahi du, irakaskuntza bakoitzaren hezkuntza-premietara egokituz.

Printzipio horiek "gingarriak" dira beste hauen alde egiten dugun neurrian:

- Orijinaltasuna vs. ikasle-tipoa

- Heterogeneotasuna vs. homogeneotasuna

- Hezkuntza-erantzun desberdina vs. erantzun uniforme

trataera

- Baterako hezkuntza vs sexismoa
- Interkulturalismoa vs. kultur monolitismo eta etnozentrisismoa
- Ekintza positiboa behartsuenen alde


Labur esanda, hezkuntza-eskaintza eta aukera-berdintasun komunitik (muinbakartasunetik) abiatuz, hezkuntza-prozesu pertsonalizatua eta desberdindua zertzea ikasle guztien eta bakoitzaren hezkuntza-premien arabera (aniztasuna). Honek guztiak esan nahi duena hobeto ulertzeko, ideia bat argitzea komeni da:

— “Hezkuntza-eskaintza komunak” ez du esan nahi guztiek gauza bera **lortzea**, baizik eta guztiek izango dutela banatzailea ez den eskaintza.

— “Ikasle bakoitzak” ez du esan nahi hezkuntza-prozesuak arreta banakoa bakarrik ematera behartzen duenik. Ikasle “bakoitz” hori ezagutzea da garrantzitsua eta bere ezaugarrien arabera **ahalik eta erantzunik onena ematea**.

Ondorioa: Aniztasunaren Trataerak LOGSEn **DESBERDINTASUNAREKIKO BEGIRUNEA** esan nahi du, gure ikasleen bizi-adierazpen anitz eta desberdinekiko begirunea. Baina hori bai, begiruneak esan nahi du hazten uztea, garapena bultzatzea adierazpide propio horiek heldu daitezen eta gizabanakoaren autoerrealizazio pertsonalean lagungarri izan daitezen. Bestalde, kontuz ibili behar da des-

berdintasuna ez dadin pertsonak berezkoa ez duen desabantailaren batek eragina izan (desoreka edo deskompentsazio sozio-ekonomiko edo afektiboa duten familieta-ko hurrei buruz ari naiz). Kasu haue-
tan jokatu behar du eskolak **DESBERDINTASUNA KONPENSATZEKO** papera aniztasunari erantzuteko, hau da, haur horiek adierazi dezatela beren berezitasu-



Elgoibarko
San Bartolome ikastola

Gai monografikoa

na eta garatu dezatela orekaz.

HPBri buruz Ceapak Gasteizen 1995eko urrian egin zuen Batzarreko goiburua geure eginez, zera esango genuke: "DIFERENTZIAK BERE BARNE HARTZEN DITUEN ESKOLAK DESBERDINTASUNAK BAZTERTZEN DITU".

... eta nondik hasiko gara?

Hau da, zein dira betebeharreko baldintzak, Aniztasunaren Trataera egokia lortzeko hezkuntza-mailan? Erantzuna ez dugu Legean aurkituko, aniztasunarekiko erantzuna ez baita "dekretuz" ematen den zerbait: hori baino gehiago eskatzen du; lan serioa eta garrantzitsua eskatzen du bai klaustron eta bai ikastetxeko filosofian.

Estrategia edo baliabide posible eta ezinezkoekin burua nekatzen hasi aurretik, oso beharrezkoa eta komenigarria da ideia hauei buruz hausnarketa egitea:

1.- Hezitzaileek garbi izan behar dute **ideologikoki ados** daudela Aniztasunaren Trataerarekin, hau da, Aniztasuna zerbait aberasgarria dela sinetsi behar da, nahiz eta konplexua izan, eta errespetatu egiten da desberdintasuna (une honetan ez gara sartuko erantzun-estrategietan). Ideiak ez badira argitzen, gero atzera-gogo eta frustrazio handiagoak sortzen dira.

2.- Aniztasunari emango zaion trataera **eskola-erakundearen agiri eta dokumentuetan ezarri behar da**: IHP-PEC, IPC-PCC, Orientabide eta Tutoretza Plan, etab.etan. Idatziz jarri "beharra" laguntza garrantzitsua da, lehenengo, guztion (hezkuntza-elkartearen) aldetik ideiak eta jarrerak argitzeko, eta gero gure lanari koherentzia emango dion gida izateko.

3.- Irakasleak jabetu egin behar du horrek eskatzen duen aldaketa ideologikoz eskola hautakorrari buruz (puntu honetan arazo gehiago izaten da DBHn). Orain **guztionezko hezkuntzaz eta bizitzarako hezkuntzaz** hitz egiten dugu (ikasten ikasteko, bizitzen ikasteko eta elkarrekin bizitzen ikasteko).

4.- Onartu beharra dago desberdina edo berezia ez dagoela txar eta negatiboarekin lotzerik (akatsak, HPB, arazoak...). Desberdintasunaren balioespen errealista egiteko kultura ezarri behar da, horrek guztioi arlo guztietan, **ez arlo akademikoan soilik**, hazten laguntzen baligu bezala.

5.- Eskolak etorkizuneko herritarrek prestatu nahi baditu, ukalezina da etorkizuneko gizarte edo herritar horiek, gero eta gehiago, kultura eta aniztasunen etengabeko trukean biziko direla. **Eta etorkizunerako hezi behar da jendea.**

Eta nola adierazten da ANIZTASUN hori?

Aztergai dugun Aniztasuna era askotara adierazten da. Alde batetik, adierazteko modua GIZABANAKOAREN arabera izan daiteke, edo, bestetik, TALDE BATEKO KIDE IZATEARI lotua.

_ Gizabanako mailan:

- Interes, motibazio eta itxaropen desberdinak ikastetxeari, irakasleei, ikasgaiari, metodologia bati... buruz.

- Aurretiazko esperientzia eta jarreraren aniztasuna: izan eta jokatzeko era desberdinak, haur bakoitzaren garapen afektibo-sozialarekin lotuta.

- Estilo, erritmo, ikasteko gaitasun, garapen eta eskolarizazio-mailak: ikasteko manera eta aukera desberdinak, hezkuntza-premia bereziak...

_ Talde mailan:

- Gutxiengo etnikoetakoa izatea.

- Sexu batekoa edo bestekoa izatea.

- Gizarte-talde behartsu edo baztertuetakoa izatea (gizarte eta ekonomia aldetik, familia aldetik edota gaixotasunen baten-gatik).

- Ohikoak ez diren familia, erlijio edo bizimoduak izatea.

Garbi dago lehen taldeko aniztasun-adierazpenak, baita sexuari buruzkoa ere, edozein giza taldean (gure kasuan edozein ikasgela edo ikastetxetan) azalduko zaizkigula, eta pertsonak berezkoak dituen desberdintasunen ondorio dira: onartu eta lagundu egin behar da kasu horietan, haurren garapena ahalik eta onena eta orekatuena izan dadin. Aitzitik, bigarren multzoko beste hirurek nolabaiteko konpentsazio edo laguntza eskatzen dute eta ager daitezke edo ez (egoeren, ez pertsonen, arabera dago hori).

Eta zer egin dezakegu guk, irakasleok?

Esaten ari garen bezala, Aniztasunaren Trataera LOGSEren elementu garrantzitsua da; beraz, horren garapena bermatzen duen Lege Esparru baten "babespean" dago. Ez da artikulu honen xedea dokumentu ofizialetan agertzen dena errepikatzea, horiek ikastetxe guztietan baitaude; ondorioz, eskematikoki aipatuko da Lege Esparru horrek eskaintzen duena eta arreta gehiago jarriko dugu Aniztasunaren Trataera bultzatzeko metodologiako eta jarrerazko estrategiei buruzko orientabideetan.

• Lege Esparrua:

— **Neurri Orokorrak**: Orientabide orokorrak curriculumeo hainbat osagiri buruz:

- Helburuak: Gaitasun guztien inguruan. Irekiak. Oinarrizkoak definitu eta mailaka egituratu.

- Edukiak: Gutxiengoko batzuk definitu eta horiei lehentasuna eman. Funtzionalak. Diziplinartekotasuna.

- Metodologia: Hainbat taldekatze. Jarduera eta ekintza autonomoak, zenbait egikaritze-mailarekin. Profesionalen arteko lankidetzak.

- Ebaluazioa: Irizpide argiak eta helburuekin koherenteak. Ebaluazio etengabea eta anitza (denboran eta moduan).

- Orientabideak eta tutoretza: hezitzaileen (guraso eta irakasleen) koordinazio sistematikoa. Taldeko eta banako tutoretza-saioak.

- Baliabideak eta antolaketa: giza baliabideei buruzko papearak argitzea. Denbora eta espazio-malgutasuna.

— **Berriazko Neurriak**: Jardunean hobeto erantzutea bermatzeko neurriak. Izan daitezke:

- * **Ohikoak**: Aniztasun jakin baten adierazpenari lotu gabek, orokorrak baizik: Hautazkotasuna eta Aukerakotasuna dira DBHn, eta Hezkuntzako Indartzea.

- * **Apartekoak**: Ikasleek behar dituztenean ezarriko dira: ikasturte bat gehiago egotea ziklo berean, ikasturte bat "salto egitea", CEIak eta Curriculum Desberdinak Eratzea (DBH).

_ Estrategia posibleei buruzko orientabideak:

_ Interes eta motibazio-aniztasunaren aurrean:

1.- Garrantzitsua da haurrak aukera izatea bere interes eta motibazioak adierazteko. Eta hori ahalbidetuko duen giroa behar da ikasgelan: galdetu egin behar zaio (tutoretzak, galdeketak, gurasoekiko bilerak...) bere alde erabili ahal izateko (irakasleen artean idazlanak trukatzuz, matematika edo fisikako problemak planteatzerakoan... gaia ezagutzen duen ikasleari protagonismoa emanez...).

2.- Metodologiak bariatua izan behar du "pixka bat" guztiei erantzuteko: ekintzak aldatu eta talde handitan, talde txikitan, banaka, lantegietan... lan egin.

3.- Irakaslearen jarrerak irekia eta abegitsua izan behar du (baina ez horregatik "bigun" edo permisiboa), haurrek motibazio desberdinak izan arren, guzti-guztiak senti daitezen **ikasteko motibatua**k.

_ Jarrera eta balio-desberdintasunaren aurrean:

1.- Garbi utzi behar da pertsonarenganako begirunea, pertsona izate hutsagatik duen balioa. Horregatik, autokontzeptua lantzeko tutoretza-saioak komeni dira, eta horrela nork bere burua hobeto ezagutzeaz gain, bestea ere ezagutzen dute (eta hori funtsezkoa da gero errespetatzeko).

2.- Halaber, garbi utzi behar da pertsona beti errespetagarria izanik ere, ez dela beti horrela gertatzen haren jokaerare-

kin, egiten duenarekin. Horregatik, ahalik eta parte-hartzerik handienaz (ikasleekin eta ikasturtearen hasieran) elkarbizitzarako arauak ezartzea komeni da, jokatu eta elkar errespetatzeko oinarriko irizpideak markatzeko. Errespetua balio nagusi bihurtu behar da, eta irakasleak eredu eta jarraibide izan behar du horretan.

3.- Irakasleak haurra den bezalakoa onartu behar du, ondo jabetuta zer-nolako mezuak igortzen dizkion. Gure joera estigmatizatzea eta "bideraezina" dena berbideratzea izaten da, ez egokia ez delako, guk atsegin ez dugulako baizik. Garrantzitsuena zera da, haurrak bere bidean eta garapen akademiko eta sozio-afektiboan aurrera egiten duela ikustea.

4.- Haurren gurasoekiko koordinazioa eta harremana funtsezkoak dira. Bi arrazoiengatik: a) informazio gehiago lortzen da haurren aurretiazko esperientziei buruz (eta horrela hobeto ulertuko dugu hura) eta b) bere garapena hobeto jarraitzeko aukera emango digu, (beharrezkoa izanez gero) nola eta noiz lagundu behar diogun adieraziz.

5.- Haurra bere berezitasunaren arabera tratatzeko, ahalik eta haren alderdirik gehienak ezagutzea komeni da. Jolastokian, korridoreetan... haurrari beha egoteak... oso informazio balio-tsua ematen du, ikasgela barruko informazio "ofizialaren" osagarri dena.

6.- Guztioi gustatzen zaigu onartuak izatea garenak garelako. Eta eguneroko bizitzan bada hamaika keinu horretarako: begi-keinua, galdera bat, zerbait aintzat hartzea... Erabil ditza-gun!



Elgoibarko San Bartolome ikastola

Gai monografikoa

_ Estilo, Erritmo, Gaitasun... aniztasunaren aurrean.

_ Orokorki:

— Hainbat egikaritze-mailatan zatituriko ekintzak proposatu eta bultzatzea, ikasle bakoitzak bere mailaren arabera helburua lor dezan.

— Informazioa biltzeko era askotako prozedurak erabiltzea, baita gero informazio hori lantzeko ere (prozedura idatziak, ahozkoak, grafikoak, teknologikoak, ikerketakoak, landan-lanak...), ikasteko estilo desberdinek adierazpidea izan dezaten.

— Desadostasun-arazoen konponbidea bultzatzea, sormena bultzatuz eta hipotesi alternatiboak eginez.

— Arlo jakin batzuk zabaltzeko edo indartzeko ekintzak planifikatzea aurrez (ez ariketa gehiago, baina bai lan pertsonal gehiago), lan-erritmo desberdinek gelako giroa hautsi ez eta alferrikako frustraziorik sortu ez dezaten (batzuk aspertu egiten direlako zain, besteek sekula ez dutelako garaiz bukatzen...).

_ Berariaz edo espezifikoki:

A) Ikasle bakoitzaren lanaren jarraipena egiteko, oso lagun-garriak izan daitezke:

— **Norberak zuzentzeko fitxak:** aurrez prestalan garrantzitsua eskatzen diote irakasleari, baina autonomia bultzatu eta erritmoak errespetatzeari begira oso onuragarria da.

— **Lan Kontratuak:** Konpromiso idatzia da, non ikasle batengandik espero dugun lan zehatza eta egiteko epea jarriko dugun. Gero, lan horren egikaritzean ikusitakoaz iruzkinak erantsi beharko dira. Horrela, erantzukizun pertsonala bultzatu eta erritmoak errespetatuko ditugu.

— **Hezkuntzako indartzea:** Dokumentu batean (CEI eredu) eduki, metodologia, ebaluatzeko era eta abarri buruzko egokitzapenak ipiniko ditugu... eta hori gidatzen hartuko dugu egiten duguna "txekeatuz" joateko.

B) Metodologiaren dibertsifikazio handiagoa lortzeko eta horren bidez aniztasunari aurre egiteko, honako hauek erabili ditzakegu:

— **Lantegiak:** Hainbat prozedurarako (batzuk errazagoak eta beste batzuk zailagoak) eta jarrerarako lana ahalbidetzen du.

— **Txokoak:** Lan autonomia errazten du eta erritmoak errespetatzen ditu.

— **Proiektuak:** Ikaskuntzaren benetakoarekin eta funtzionalarekin konektatzen du. Globalizazioak haurren adierazpena ahalbidetzen du, lan-arloren batean gutxienez.

— **Taldekatze malguak:** Homogeneoak direnean, "egonkor" bihurtzea eragotzi behar da. Taldeetako partaideak aldatu egin behar dira arloen arabera.

— **Lankidetzako taldeak:** Talde heterogeneo honek ikaskuntza elkarerragilea eta sozializazioa ditu helburu (arazoak konpontzea, harremanak...).

— **Berdinkideen tutoretza:** "antzinako" estrategia honek jabetzea komeni da, arlo batzuetan gaitasun gutxi baina beste batzuetan handia duten haurren kasurako. "Tutore" eta "tutorizatuaren" eginkizunak aldatu.

— **Bi irakasle gela berean:** oso ongi koordinatzea eskatzen du eta bakoitzaren egitekoak ongi zehaztea. Hobe ardurapeko taldeak txandakatzea.

_ Gutxiengo etnikoetakoak diren hurrekin:

— Jakina, oso lagun-garria izango da aurrez ikastaldearekin gelan landu badira elkartasunaren eta desberdintasunarekiko begirunearen balioak. Lan hori errazteko gero eta baliabide didaktiko gehiago dago, eta ezaugarri komunak dituzte:

— Argibide gehiago ematen dute gutxiengo etniko horiei buruz (kultura, historia, bizimodua...). Denok dakigu ezjakintasunak aurreiritziak eta tolerantziarik eza ekartzen dituela.

— Haurraren sentimendu enpatikoa sortu nahi dute: "Zer sentituko zenuke zuk...?", eta besteari buruz ikuspegi giza-tiarragoa izaten laguntzen dute.

— Bestearekin komunikatzeko bide posiblez orientabideak ematen dituzte, besteari abegitsu onartua dela sentiarazi.

— Gutxiengo etnikoko haurra gure gelan "agertzen" denean, egokia da:


1.- Bere ikaskuntza-maila "txekeatzea" eta beharrezko neurriak hartzea taldeko dinamizari jarraitu eta, batez ere, bere garaipena lortu ahal izateko minimoetara irits dadin.

2.- Haurrak gurea ez bezalako hizkuntza badu, hizkuntza ikasteko programa trinko batean sartu behar da (eztabaida daitete ea horretarako bere gela-taldetik banatu behar den edo ez).

3.- Metodologia aktibo eta parte-hartzaileak erabili argi eta garbi, horien arabera "beti egin ahal izango duelarik zerbait" (hizkuntzak hain baldintzatuta egon gabe).

4.- Irakasleak gelako giroaren eta sortzen diren gatazken jarraipena egin behar du, eta lehenbailehen esku hartu.

5.- Sortzen diren dilema etikoen aurrean ez ahaztu helburu nagusiak (sexu-bereizkeria, "ramadana"...). Haurraren eskubide-



HELEN OXENBURY. *Tiqui, tiqui, tac.* Barce. o

ak eta LOGSEren printzipioak dira oinarritzko erreferentzia erabakiak hartzeko orduan. Halaber, garrantzitsua da ohartzea dena ez dela balio berekoa (adibidez, ez da gauza bera arroparekin bainatzea edo eskola 12 urterekin uztea...), eta lasai jokatu behar dugu uste baino garrantzi gutxiago duten gauza batzuetan.

6.- Gurasoengana hurbiltzea, batzuetan era "atipiko" samarrean, baina beharrezkoan. Garrantzitsua da beraiekin gutxieneko adostasun batera iristea koherentzia handiagoa eta emaitza hobekiak lortzeko.

_ Gizarte-talde behartsuetako haurrekin (ogibiderik gabeko familia, edo droga eta alkohol arazoak dituzten gurasoen seme-alabekin):

Oro har, haur horiek aparteko jarraipena behar izaten dute hezitzailearen aldetik:

- **afektibitatearen** eta onarpen pertsonalaren aldetik
- **portaera**-erreferentzia egokien aldetik
- **beste gizarte-agente batzuekiko koordinazioaren** aldetik (Foru Aldundia, Udalak, Gizarte Laguntza...). Kasu horietan garrantzitsua da hezitzailea dagokion erantzukizunaz jabetzea haur horren bizitzaz informazioa hartu eta ematen duenean.

_ "Ezohiko" familietako haurrekin (guraso homosexualak, ama ezkongabeak, seme-alabatzen hartutako haurrak, gutxiengoan erlijiodun familietakoak...)

— Batez ere, talde-mailan landu behar dira bizitzako aukera horiek guztiak, denek ezagutu ditzaten eta "normal" edo "sanotzat" jo ditzaten, hau da, bizitzeko beste aukera bat bezala.

— Balioen arloa azpimarratu behar da: begirunea, aniztasunaren aberastasuna... (Jada egituratutako tutoretza eta materialen bidez).

— Interkulturalitatearen gaian planteatzen genuen bezala, hemen ere garbi izan behar dugu zein diren helburu nagusiak haur horren heziketan, eta gatazkak erlatibizatzen jakin.

_ Sexu bateko eta besteko haurrekin:

— Hezkidetza edo baterako hezkuntzaren printzipio eta estrategia metodologikoak (hemen ez ditugu azalduko ikastetxeetan oso ezagunak eta aztertuak direlako). Oro har, honela planteatuko genuke:

... Ondo jabetu zer nolako mezuak igortzen ditugun, sexuaren

arabera bereizketarik egiten dugun ala ez...

... Taldekatzeak egiten ditugunean neska-mutikoen artean harremana gehiago bultzatu.

... Baterako hezkuntzaren eta ez-bereizlearen alde jokatu gurasoekin elkarrizketatzean.

Baina posible al da hau guztia?

Noski, Aniztasunaren Trataera ez da batzuek saldu nahi ditugun bezain sinplea, ezta beste batzuek dioten bezain ezinezkoa ere. Horregatik, ongi dago hausnartzea, eta aniztasunari ongi erantzutea eragotzi dezaketen arazoaren balantzea egitea, baita aniztasuna eta horren trataera helburutzat hartzean agetzen diren aukera positiboaren balantzea ere.

*** Eragozpen posibleak**

— Irakasleak:
— Denboraren erabilera aldatu beharra eskolen diseinuan eta dedikazio handiagoaren beharra ikasleen jarraipenerako.

— Lan-sistema berrietara ohitu beharra, lankideekin komunikazio handiagoa eta taldeak kudeatzeko estrategietan prestakuntza handiagoa eskatzen duten lan-sistemetara, alegia.

— Curriculum:

— Metodologiak, ebaluazio-erak, etab. berriro diseinatzea denbora, prestakuntza eta horretarako estrategiak eskatzen ditu.

— Antolaketa:

— Lanpostuen aldakortasun handiegia oztopo bat izan daiteke Ikastetxeko Proiektuetan jarraipen egokia egiteko gai honetaz.

— Ohiko espazio eta denbora-egiturek ez dute errazten irakasleen arteko koordinazioa.

*** Abantaila posibleak:**

— Ikaslea bere banakotasunean onartzen da eta bere garapena integralagoa izatea ahalbidetuko duen erantzuna ematen zaio, garapen horren osagai guztiak hartzen baitira kontuan.

— Kalitatez eta kuantitatez irakasle-ikasleen arteko harremana gehitu egiten da, baita irakasle eta gurasoen artekoa ere.

— Irakasleen artean koordinazio handiagoa lortzen da, eta horren ondorio dira:

1.- Irakasleak bere burua talde bateko partaide gisa ikustea, eta horrek "babestuago" sentiarazten du bere erabaki eta zalaraztetan.

2.- Koherentzia handiagoa lortzea hezkuntza-proiektuaren garapenean guztion aldetik.

Ikusten dugu zailtasun edo eragozpenetako asko alderdi administratibo edo/eta ekonomikoei lotuak daudela, eta horiek Hezkuntza Administrazioaren eta jartzen dituen baliabideen mende daude: honek zaildu egiten digu arazoa, baina ez du aitzakia izan behar Aniztasunaren Trataeran ez murgiltzeko: **Egin dezagun guk hemen, orain eta daukagunarekin berrantzeko egin dezakeguna, ziur aski, uste duguna baino askoz gehiago izango da eta.**



ona. Juventud, 1987

Aniztasunaren trataerak gaur egun irakaskuntzan duen lekuaz aritzeko, eta gaiaren inguruan sortzen diren zalantza-kezkak direla eta, oinarrizko galderak egin nahi izan diegu esperientzia handiko hiru profesionali. Hona hemen haien gogoetak.



Blanca Martínez de San Vicente, Gasteizko "Rogelia de Alvaro-Luis Elejalde" Haur eta Lehen Hezkuntza ikastetxeko zuzendaria da. Kargu honetan azken lau ikasturteetan ari da. Aldi horretan ez du gelako erreferentziarik galdu, klaseetan sartzen jarraitzen baitu (Haur Hezkuntzan, batez ere). Ikastetxean, irakasleen formakuntzak duen garrantziaz jabetu da. Horregatik, urte hauetan, ekina- ren ekinez, eskolako irakasleekin batera proiektugintzan dabil: formazioa jasotzen, ikastetxean dagoen esperientzia praktikarekin kontrastatzen, hausnarketak egiten eta, ahal den neurrian, egokiagoak izan daitezkeen aldaketak eginez.

Blanca Martínez de San Vicente

1- Aniztasunaren trataera egoki bideratu ahal izateko, zeintzuk dira somatutako beharrak?

Ikastetxe mailan, hainbat pauso eman behar dira:

- Irakasleek aniztasunarekiko konpromezua hartzea. Desberdintasunean sinisten denean, gelan agertzen diren aniztasunak onartzea errazagoa da eta norberaren jarrera irekiagoa egiten da. Aniztasunak aberastasunak dakar.

- Ikastetxeko Hezkuntza-Proiektuan: aniztasunari buruz ulertzen dena idaztea, ikastetxearen filosofia islatzea.

Ikastetxean erantzungo diren aniztasun adierazpenak esplizitatzea: norbanako mailan eta talde baten partaide gisa direnak.

Eskolako funtzioak islatzean, aniztasuna ere kontuan hartzea: bateratzailea, globala, prebentzioa egiten duena, konpentsatzailea.

- Ikastetxeko Proiektu Curricularrean ere aniztasuna kontuan hartzea:

Helburu-edukinak ezartzeran,

Metodologia antolatzean,

Gelako programazioa egitean: talde ososarena, egokitzapena duenarena, CEI duenarena.

- Guraso eta irakasleen arteko harremanak bultzatzea, sendotzea.

2.- Zer alderdi positibo ikusten diozu aniztasunaren trataerari?

Ume guztiengana heltzen da. Horrela, norberaren konfidantza garatzen da.

Haur bakoitzari jarraipen zehatzagoa egiten zaio. Protagonista umea da. Gelako, eskolako antolamendua hobetzen da: ordutegia antolatzeko, taldeak osatzeko, ekintzak antolatzeko.

Baliabide materialak zein giza baliabideak hobeto aprobetxatzen dira.

Irakasleak ikasleengandik hurbilago sentitzen dira.

Irakasleen elkartrukaketa eta koordinazioa errazten da.

Irakasleen kontzientzia, konpromezua sendotzen da.

3.- Nola ulertzen duzu zuk “Aniztasunaren Trataera”? Zer eskatzen du zure ustez?

Nire ustez, aniztasunaren trataera da kontsideratzea ume bakoitzak, eskolara datozenerako, bere ahalmen, ezagutza eta bizipenak dituela. Konszienteak izan behar dugu honetaz: eskolara heltzen den haur bakoitza paregabea da, den-denak desberdinak dira eta.

Eskolak aukera berdinak eskaini behar dizkie guztiei, eta bakoitzari behar duen erantzuna eman.

Aurretik esandakoak zera eskatzen du: alde batetik, irakasleak desberdintasunarekiko jarrera irekia izatea, errespetua adieraztea eta konturaztea ikasleek, desberdinak izanik, erantzunak behar dituztela. Bestetik, ikastetxeari eskatu dio: integratzailea eta konpentsatzailea izatea, prebentzio neurriak izatea; Horiek ez ezik, giza helburuak garatzea ere badagokio: hezkidetzeta, harremanak, baloreak (elkartasuna, elkar laguntza...)

4.- Orokorrean, irakasleak nola ulertu du?

Nire ustez, ikastetxeko IPC.a egin zenetik, ikasleagoak bilakaera bat izan du, Tarte honetan aniztasunaren trataerari buruzko ulermena zehazten, moldatzen eta egokitzen joan da.

Hasiera batean gaia orokorrean, maila teorikoan alegia, hartu zen, ez ikastetxeko errealitateari begira soilik, baizik eta aniztasun adierazpen guztiei begira. Eguneroko dinamikan sartzekoan, ahalegin eta planteamendu guztiak egin ziren irakasleentzako oso garrantzitsuak ziren kasuei erantzuteko, HPBa zuten irakasleei hain zuzen ere.

Aniztasun mota honek irakasleei lagundu die, bere entzute jarrera areagotzera, behaketa zuzenagoa egitera, sentiberatasuna hobetzera.

Prozesu horren ondorioz, eskolan dagoen beste aniztasun mota bati ere erantzuten aritu dira irakasleak: jarrerekin, portaerekin zerikusia duena eta ikasteko zailtasunarekin loturik dagoena.

Dagoeneko, irakasleria saiatzen ari da erantzuna ematen gelan dagoen taldeari, nahiz sortu dira kasu berezietan. Horretarako kontuan hartzen ditu: ikasle bakoitzaren interesa, motibazioa, ikasteko estiloa, lan erritmo desberdinak, gaitasun desberdinak.

Metodologia aldetik, estrategia orokorrak eta beste estrategia zehatzagoak erabiltzen ari dira.

Bilakaera honetan zalantza asko sortzen ari dira, kontraesanak, kezkak... Baina irakasle taldeak erantzun gero eta egokiagoa bilatzeko nahian, aniztasunari buruzko formazioa, hausnarketak eta esperientziak egiten jarraitzen du.



Elgoibarko San Bartolome ikastola

Hirune

Iribecampos



Hirune Iribecampos, Arrasateko San Frantzisko Xabier Ikastolako irakaslea, azken hamar urteetan Hezkuntza Berezian aritu da, eta egun "Zeregin Ikaskuntza Gela"n dihardu lanean.

1.- Aniztasunaren trataera egoki bideratzeko zer behar sumatu dituzue?

Ikastetxe bakoitzak Hezkuntza proiektuan pentsatu dituen aniztasunari buruzko intentzioak garatu behar ditu. Horrela bada, ikastetxeko proiektu curricularrean jaso behar da gaia garatzeko antolaketa. Egin beharko da, beraz, curriculumaren egokitzapena eta, halaber, zehaztu ikastetxearen laguntza plana.

Ikastetxeko Proiektu Curricularretik (IPC-tik) abiatuz, zehaztu egin beharko dugu zikloei eta gela barruko jardueri zer erantzun eman. Gauzak horrela, gela barruan hasierako ebaluazioa egin beharko dugu premien berri izateko. Ondorengo pausoa, tutore eta laguntza-irakasleen artean urteko plana egitea izango da.

Azkenik, egindako prozesua ebaluatu ondoren, sumatutako beharrak eta aldaketak berriro IPCan txertatuko ditugu. Hortaz, esan daiteke zirkulu bat marraztu behar dela prozesuaren hasieratik akaberara.

2.- Zein alderdi positibo ikusten diozu orain aniztasunaren trataerari?

LOGSE publikatu aurretik, eskola hezkuntza premia berezia zuten ikasleei erantzuten saiatzen zen, eta horretarako ikaslea gelatik atera eta programa berezia egiten zitzaion.

LOGSE martxan jarri zenean, aniztasunaren kontzeptua zabaldu egin zen, eta orain eskola miunbakarra (escuela comprensiva) eta eraikitzailea martxan jartzeko pausok ematen ari da. Marku horretan, onartzen da ikasle guztiek dituztela hezkuntza premiak, eta, neurri batean, behar horiek guztiak bereziak eta aldakorrek direla: neska-mutil bakoitzak bereak ditu.

Eskola miunbakarrak, bere hezkuntza proiektuaren diseinua egitean, malgua izan behar du, eta hezkuntza premiak dituzten ikasleei banan-bananako arreta eskaini behar dio; ildo beretik, desabantaila eta premia handiak ikusten diren egoeretan, ekimen positiboaren printzipioan oinarritu behar du.

Ikastetxeko planak malgutasunez erabiltze honek gela bakoitzean dagoen errealitatera egokitzea ahalbidetzen du; eta metodologia-antolaketa ezberdinak erabiliz, eta, behar izanez gero, ez ohiko neurriak hartuz, ikasle denek egin ahalko dute aurrera.

3.- Nola ulertzen duzu zuk aniztasunaren trataera. Zer dakar horrek zure ustez?

Aniztasuna irakurketa asko dituen kontzeptua da, nahiz eta denak elkarren artean lotuta egon.

Gogoan izan behar dugu ez direla soilik ezaugarri kognitibo eta erlazionalak kontuan hartu beharrekoak. Ikaslearen identitatea eta autokontzeptua osatzen duten ezaugarri psiko-sozialak, generoa eta kultura ere erabakiorrak direla; eta, horrela bada, kontutan hartu behar dira osagai horiek guztiak erantzun egokia asmatzeko eta emateko.

Aniztasunarekiko ardura hezkuntza sistema osoa hartzen du bere baitan. Hona hemen begien bistan izateko puntu batzuk:

. Hezkuntzaren plano eta maila guztietatik behatu behar da, sistemaren egituratik hasi eta gelako jarduerak zehazteraino.

. Irakasle guztiak eta ikastetxe osoa konprometitzen ditu, eta ez haietako batzuk.

. Ikasle guztiei dagokie eta ez arazoak, eragozpenak edo muga pertsonalak dituztenei bakarrik.

. Azken finean, curriculumak agintzen dituen gaitasunak zein mailatan ikasten eta garatzen dituen ikasleak hausnartu

behar du eskolak, eta horiek lortzeko zein aukera dituen zehaztu eta, halaber, programatu eragina izango duten neurri eta ekintza mailakatu eta baterakorren multzoa. Hori da eskolak ikasleei eman beharreko erantzuna.

4.- Orokorrean irakasleak nola ulertu du?

Orain arte curriculum nahikoa itxiarekin funtzionatu dugu. Helburuetara iristen ez ziren ikasleak ez zuten aukera gehiegirik aurrera egiteko.

Aldiz, ikasle multzo batek laguntza berezia jasotzen zituzten beharrei erantzuteko, baina beti ere gela arruntetik kanpo eta ikasle bakoitzari egokitutako programa batekin. Orokorrean, ikasle hauen ardura laguntza irakaslearena izaten zen, eta berau arduratzen zen programaz, egokitzapenez eta jarraipenez. Orain, irakasleria osoa aldaketa fase batean dago.

LOGSE martxan jarri zenetik eta eskola markoa aldatzen joan denetik, aniztasunaren kontzeptuaren aldaketa etorri da eta pixkana-pixkana aldatzen goaz ulertzeko eta funtzionatzeko era.



Elgoibarko San Bartolome ikastola

Resu Abasolo



Resu Abasolo Gallastegi. Aretxabaletako KURTZEBARRI Ikastetxeko irakaslea. Haur eta Lehen Hezkuntzan Irakasle Aholkulari lanetan hainbat ikasturte-tan aritua. Une honetan KURTZEBARRI BHiko Zuzendaria.

1.- Nola ulertzen duzu aniztasunaren trataera? Zertan datza aniztasunaren trataera?

Aniztasunak desberdintasuna adierazten du, heterogeneotasuna. Aniztasunaren trataera ondoko desberdintasun hauek ikustean eta onartzean datza: eguneroko praktikan ikasleek harremanetarako modu desberdinak dituztela konturatzea, interes eta motibazio desberdinak, edukiez jabetzeko modu desberdinak....**Esandakoa antzemandakoa, irakasle taldeak konsensuatzea:** testuingurua aztertuz, eragileak identifikatuz ...**eta ondoren erantzuna partaide guztien artean planifikatzea irakasleon jokaera moldatuz eta egokituz.** Arreta merezi duten aniztasun motak desberdintasun txikienetik hasi eta nabarmenago artekoak dira, hezkuntza komunitateak ala uste badu behintzat. Aniztasunaren trataera, beharrak dituztenen alde positiboki jokatzeko da. Hori da Hezkuntza Publikoak garantizatu behar duena

2.-Orokorrean irakasleak nola ulertu du?

Aniztasunari erantzuteko printzipioak irakasleak osoak onartzen baditu ere, praktikan irakasleen artean bi talde bereiztuko nituzke une honetan. Alde batetik, bai bakoitzaren profesionaltasunagatik edo ikastetxeko giroa aniztasunaren aldekoa izan delako, eta honi organu guztien aldetik ematen zaion garrantziak bultzatuta, **benetan eredu izaten ari dena, errealitatean oinarrituz aurkezten dituzten lanak eta proposamenak aurrera eramateko teoria eta praktika uztartzeko erakusten duten trebetasunagatik.** Bestetik badago aniztasuna lan gehiago edo zama bezala ikusten duen taldea. Desberdintasunei erantzutea beharrezkoa jotzen duten arren, ez dute ikusten euren egitekoa denik. Ezina, laguntza falta, beste ikasleei behar bezala ezin atenditzea, denbora falta.... adierazten dute orokorrean eta ez dira gustura sentitzen denengana ez baitira heltzen.

3.-Aniztasunaren trataera egoki bideratu ahal izateko, zeintzuk dira zuk somatzen dituzun beharrak?

Guztiok onartzen ditugu aniztasunari erantzuteko printzipioak ikastetxearen egoerara ekartzeko eta taldean hausnarketa egiteko **zailtasunak:** ikastetxeko proiektua aniztasunean oinarritzeko beharrik ikusi ez, hitzez garrantzia eman bai, baina ikastetxe osoa inplikatu beharrik ikusi ez. Eta hala, aniztasunaren trataera irakasle espezifiko batzuen lanera mugatzen da.

Aholkularien hasierako prestakuntza falta. Esperientzia gutxi teoriaren ekarpenak egunerokoarekin lotzeko. Irakaslearekin lana egiteko

2 Aldizkariak

4 Liburuak

7 Oihartzunak

11 Argitaletxeak

12 Berriak



kukuluuma

ESAN DUTE

HAN DICHO

No se lee sólo con palabras. Una ciudad, con sus calles, su carácter, su diseño, es una lectura. El modo en que se organiza una casa, la manera de poner la mesa y servir la comida, de tender la ropa, de cosechar la uva, son lecturas. Lo es la crianza que se le da al hijo. Acariciar un cuerpo es un modo de leerlo, también lo es echarle una manta encima. El Guernica de Picasso es una lectura. A la inversa, algunos amontonamientos de palabras no son ni generan lectura.

Se lee a partir de un enigma...

Ese enigma está. Es posible que nunca logremos reducirlo a lenguaje –al menos al lenguaje científico como lo entendía Wittgenstein-, y debamos pasarlo en silencio. Pero está. Y todo afán de sentido –toda lectura- derivará del asombro y la perplejidad que nos envuelve al constatar su presencia.

Graciela MONTES, “De lo que sucedió cuando la lengua emigró de la boca”, *Lectura y Vida* año 20, 3, septiembre 1999, p. 6-14.

Yo comparto lo que decía Stevenson: “Un libro tiene muchas cualidades. Pero hay una sin la cual todas son inútiles. Esa cualidad es el encanto. Cuando usted lee un libro debe percibir ese encanto, y sentirse interesado.

PEICOVICH, E. (1995, 2ª ed.): *Borges, el palabrística*. Madrid: Libertarias/Prodhufo, p. 63.

Los cuentos de hadas no son en rigor otra cosa que la expresión del pueblo: de un pueblo que aún no tenía voz, excepto para transmitir de padres a hijos todas las historias que conforman nuestra existencia. De padres a hijos, de boca en boca, llegaron hasta nosotros las viejísimas leyendas.

Pero en esas leyendas, en aquellos “cuentos para niños” –que, por otra parte, fueron recogidos por escritores de la talla de Andersen, Perrault y los hermanos Grimm, por ejemplo- se mostraban sin hipócritas pudores las infinitas gamas de que se compone la naturaleza humana. Y allí están reflejadas, en pequeñas y sencillas historias, toda la grandeza y la miseria del ser humano (...).

La palabra “hermano”, la palabra “miedo”, la palabra “amor”, son palabras muy simples, pero llevan el mundo dentro de sí. No siempre es fácil, ni sencillo descubrirlo. Hay que intentar alcanzar el oculto resplandor de esas palabras, de todas las palabras, o de una sola que todavía nadie oyó nunca pronunciar.

Toda mi vida ha sido una constante búsqueda de esa palabra capaz de iluminar con su luz el país de las maravillas que tanto nuestro mundo como, sobre todo, nuestro lenguaje albergan, y que no siempre nosotros sabemos indagar


Ana María MATUTE: “En el bosque”, Discurso de ingreso en la Real Academia Española, enero 1998.

No hay espectáculo más hermoso que la mirada de un niño que lee

Günter Grass
Discurso Premio Príncipe de Asturias, 22 de octubre de 1999.

A
r
t
i
k
u
l
u
m
a
k

Liburu aipagarriak



ADAMS, Georgie
Bibliako kontakizunak
 Ilustratzailea: UTTON, Peter
 Itzultzaileak: ARRIZABALAGA,
 Itziar, LAZKANO, Edurne
 Donostia: Ttartalo, 1998

Honela diosku Georgie Adams-ek, liburu honetako testugileak, liburua-ren hitzaurrean:

Liburu hau idazteko asmoz eseri nintzenez, istorio hauek seme-alabei nola konta niezazkiekeen pentsatzen saiatu nintzen, han-hemenka neure pentsamenduak txertatuz eta umoreari ere lekua utziz. Istorioen kontaktak bazuen halako berezitasun bat, elkarrekin une gozoak pasatzeko aukera ematen zigun. Hori guztia kontuan hartuta, istorio edo kontakizun hauek kontatuak izateko moduan berridatzi nituen, duela milaka eta milaka urte, kontakizun hauek idatzi baino askoz ere lehenagotik, jendeak elkarrekin denbora pasatzen zuen modua gogoratuz, horrelaxe hasi baitzen Biblia bera ere.

Hitz esanguratsuak Adams-enak, egoki islatzen dutenak liburua argitaratzeko arrazoa. Dena den, nahiz eta Bibliako (Testamendu Zaharreko zein Berriko) kontakizun ezagunetako batzuk berridatziak agertu, esan beharra dago kontu handia izan dutela egileek gertakari zoragarri hauen izpiritua eta mezua ez dadin alda.

Hona hemen bertan irakur daitezkeen kontakizunak: *Noeren ontzia, Jose eta honen koloretako jantzi apaina, Moises kainabera artean, Dabid eta Goliat, Daniel lehoien*

zuloan, Jonas eta balea, Jesusen jaiotza Belenen, Samariar ona, Ogien eta arrainen istorioa eta Jesusek Jairoren alaba sendatu. Denera: 10 kontakizun, euskara txukunean, enkuadernazio zainduaz eta ilustrazio atseginez hornituak. Liburu handia bezain ederra.

(6 urtetik aurrera)



BALZOLA, Asun
Jontxuren fragata
 Itzultzailea: AUZMENDI, Lurdes
 Bilbo: Aizkorri, 1998 (Mendi sorgindua)

Gaztelera-zko esara batek hitz ontziaren gainetik irudia balioesten badu ere ("Una imagen vale más que mil palabras"), honako liburu txiki honetan hitzek ikaragarri indarra dute, bertako orrialdeak erabateko plastikotasunez betetzen dituzten irudiek beste edo gehiago: lerro beltz oso sendoak, molde itxiak eta kolore planoak.

Duela hamar urte Ereinek argitaratu

tutako **Jontxuren fragata: Askatasuna** haren argitalpen berria da honako hau; ez du, ordea, gaurkotan apurrik galdu igarotako tartean. Beharbada, Asun Balzola, idazle-ilustratzaileak beti senaren beraren esanetara idazten duela, funtsezkoa bakarrik deskribatzen duela, eta oraingo ume baten oinarritzko arazoak betikoak direlako.

Argitalpen berriak freskotasunean irabazi du. Lurdes Azurmendik eginitako itzulpena zuzena eta egokia da. Asun Balzola ezagutzen duen irakurleak berehala antzemango du istorio honetan egile beraren esperientzia pertsonalaren isla. Idazleak mugei eta ahaleginei buruz hitz egiten digu, eta kontzeptu horiek gutxietxi egiten ditugure gizarateak. Asun Balzolak bizi-modu errealerara gerturatzen gaitu haren bakardadeek eta isiltasunek lagundurik. Aurkezten dizkigun pertsonaiak berba gutxikoak dira, baita gorputzez urrutikoak ere, eta horien agerpenak irakurlea lasaitu egiten dute.

Edertasunari, estetikari, gizakia ahaleginaren bitartez hobetzeari egindako kantua da; hitz batean, askatasunari eginiko kantua:

"... askatasuna... norberak buruan daukan zerbait dela iruditzen zait. Nire buruan nik nahi dudana dago. Eta barrutik ere korrika egin daiteke..." (42. orr.)


(10 urtetik aurrera)



AÑORGA, Pello
Jiran-Biran
 Ilustratzailea: MITXELENA, Jokin
 Bilbo: Aizkorri, 1998 (Mendi sorgindua)

Pello Añorgak bizitzan, itsasoan, basoan, sartzeko aukera sinbolikoa eskaintzen digu txoria bezain arina den liburutxoak. Bizitzan jiran-biran, poesiak idazten ditu, eta poesiak direla bide egoerak islatzen: eguneroko bizitzakoak eta bizitza horren inguruan biraka, zirkuluan, dabilzan beste mundu horietako egoerak ere bai. Modu horretan, asko eta askotan, hitz egiten digu egunerokotasunean hain begien bistan -edo akaso bai?- dugun magiaz, dena armiamaren haritik zintziliek gelditzen den instant horietaz. Begiratu eta harritu: zer eta magia dago, hitzen magia. Zeren hizkuntza eta hitzen muxika-kaxa zabaldu duenez, zera agertzen zaigu: hitzen erritmoa eta hitzen musika. Hitz garrantzitsua da, eta balio dio bere behebarruak gurekin konpartitzeko. Poeta honi axola zaio hitzek ezkutatzen duten doinu eta esanahia argitzea eta eraldatzea, berbak soineku berriz guri ematea. Pello Añorgaren lan honetan eskulturak daude; poesiak egiten dituenen, Oteiza bailitzan, guk mailuaren tiriki tauki taukia entzuten dugu. Liburu zoragarria, liburu gozagarria. Baita Jokin Mitxelenaren ilustrazioak ere. Bidai lagun izateko balio duen horietakoa.

(Adin guztientzat)



RUSTAVELI, Xota
Zaldun tigrelarruduna
 Alfaguara, Madrid, 1999.

Itzulpena: Xabier Kintana
 Irudiak: Mihai Ziczi (1827-1906)

XI-XII. mendeetan, politikan, ekonomian eta kulturatan Georgiak garapen harrigarria izan zuen. Giro aberats horretan bizi izan zen Rustaveli poeta, *Zaldun tigrelarruduna* obraren egilea.

Liburu hau, Tamar erreginaren omenez idatzia, 1671 bertsoko poema da, eta bertan idazlearen sentimendu ezkutuak, literatura kritiko batzuen esanetan, nolabait sublimatuak agertzen omen dira.

Obra nagusi honek maitasuna kantatu eta adiskide zintzoen leialtasuna goraiatzeko du.

Nahiz eta obra Arabian, Pertsian eta Indian kokatua egon, agian idazlearen joku literarioa dena, idazleak azaltzen duen pentsaera eta ikuspuntua kristau tradizioan murgildurik dago; hala ere, noizbehinka, ukitu musulmanak ere aurkitzen ditugu narrazioan. Protagonistak Erdi Aroko hiru zaldun dira, Avtandil, Taniel eta Pridon, eta heroien estereotipoak izanik ere, nor bere nortasuna erakusten du maitasunean eta borrokatzeko estrategian. Emakume maiteak zintzoak eta ederrak dira, eta eguzkiarekin eta ilar-giarekin konparatzen ditu autoreak.

Idazleak aitortzen duenez, obra bere erreginari eskaini zion eta bizitza osoan hari leiala izaten ahalegindu zen. Jerusalemeko monasterio batean omen daude


biak hobiratuak.

Testu klasikoak irakurtzea hezibide aberatsa da eta irakurketa bultzagarria gure ustez. Kasu konkretuan Erdi Aroko Georgiako obra nagusi honen euskarazko egokitzapena irakurtzea aukera ederra da guretzat.

Seguraski gure gazteek espontaneoki ez dute liburu hau erraz hartuko, baina prestakuntza literarioa eta kulturala nola egin, nola bideratu, zein irakurketa motak bultzatu, etab. mahai gainean dagoen eztabaidatzeko gaia da. Gure ustez kultura unibertsalaren ekarpenak beti ongi etorriak izan beharko lirateke eta dira.

Euskera maila jaso, landu eta poetikoa eta irakurtzeko plazerra sortzen duena.

(16 urtetik aurrera)



SCHREIBER-WICKE, E.
HOLLAND, C.
Un cuervo diferente
 Barcelona: Juventud, 1995


Arrano koloredun protagonistak gaur egun asko aipatzen den gaia garatzen du: tolerantzia; edota, beste modu batera esanda, ezberdina izateko eskubidea. Baina baita baztertua eta ez ulertua izateko sentsazio arrotza.

Norberaren identitatearekin zer ikusia duen liburua, marrazki bikainekin batera.

Hona zer dioen liburuaren egileak: "Niri gustatu egiten zaizkit ezberdinak diren haurrak. Azken finean, mundu honetako gauza batzuk ezberdinak izatea nahiko nuke.

(4 urtetik aurrera)

L i b r u a k




BROWNE, A.
El libro del Osito
 México: Fondo de Cultura Económica, 1994

Harzkumea paseatzera atera delarik, bide ertzean aurkitzen den animalia bakoitzari behar duena emango dio marrazki ikusgarri, kateatu eta umorezkoen bitartez.

Iandar handiko ilustrazioak, haur txikien eta ez hain txikien gozamenarako.

El librito del osito-rekin batera **Un cuento de Oso** liburu ere argitaratuta dauka Anttony Brownek, eta modu honetara, harzkumearen pasadizuak areago garatzen eta lantzen ditu.

(2 urtetik aurrera)




SHELDON, D.
BLYTHE, G.
El canto de las ballenas
 Madrid: Kókinos, 1993

Liburu ederra, poetikoa, misterio-tsua eta iradokitzailea. Bertan, animalien ganako begirunea zaintzen da eta beraien ganako harreman poetikoa sustatzen.

Zeren baleek ez baitute balio koipea bakarrik emateko, baita, horretan siniztuz gero, gure identitatea aurkitzeko ere, gau batean Lili neskato biziak aurkitu zuen bezala.

Liburu lirikoa bezain afektiboa.
 (4 urtetik aurrera)



BATZUK
Lau urtaroak bilduma
 Donostia: Elkar, 1995

Bilduma honen gai nagusia animalien bizitza da: nola jaiotzen diren eta nola bizi, janaria nola lortzen duten, zer ohitura dituzten, etab. Hona tituluak: **Pingui-noa, Basoko sagua, Azeri urdina, Katua...**

Marrazki ederrak bikain daude uzartuak testuarekin. Haurren identifikazioa lortzeko era ezin aproposagoa.

Egitura landua. Bilduma koherentea eta ondo definitua.

(5 urtetik aurrera)



PAKOVSKA, K.
El pequeño rey de las flores
 Madrid: Kókinos, 1993

1992.urtean "Andersen Saria" irabazitakoa da Pakovská, alegia, haur eta gazte literaturaren ilustraziogintzan ematen den saririk ospetsuena.

Zoritxarrez, gaztelaraz eta euskaraz batez ere oso liburu gutxi daukanez argitaraturik, aukera ezin hobea dugu haur literatura maite dugunok bere dohian apartekin gozatzeko. Pakovská-rentzat, izan ere, liburu zerbait bizi baita, hots, arkitektura bat duena, non letrek eta irudiek elkar behar duten entzun; paradisu berria, huts hutsa, non animaliak, mar-goak, formak eta pentsamenduak bizi diren elkarren errimoan, bolumenak sortuz, testurak, forma arruntak, egitura sinpleak, collageak, eta abar.

Horregatik da aintzindaria Pakovská, nahiz eta liburu honetan bezala, oso egitura klasikoa erabili.

Ezagutu beharrekoa.
 (5 urtetik aurrera).

LIBURUAK AUKERATZEKO HAUTESKUNDEAK (JUUL KANPAINA)

Irene López Goñi
Nafarroako Ikastolen Elkarte

Goizeko 9,30ak dira. Ikastolan ez ohiko giroa nabaritzen da. Irakasleak zein haurrak iragan-bideetatik korrika dabilta. Harrapatu dudan lehen-dabiziko irakasleari zer gertatzen den galdetzea lortu dut.

- Gaur hauteskundeak ditugu Ikastolan. – erantzun dit

- Hauteskundeak? Sindikalak pasa berriak dira, municipalak ez dira iritsi, zer hauteskunde duzue?

- Ez, guk ez. Hurrek dituzte.

- Hurrek? Baina oraindik ez daukate bozkatzeko adinik!

- Gurean bai. Hiru urtekoek ere bozkatzeko adina dute.

- Hiru urtekoek? Irakasle hauek erotu dira!

- Etor zaitetz eta ikusiko duzu!

Gela batera eraman nau. Mahai luze baten gainean, bozkatzeko lau ontzi eta, mahaiaren atzealdean, adin ezberdinetako lau ikasle. Serio, urduri samar. Lehendakari bezala erdian dagoenak aldamenekoari:

- Haur Hezkuntzaren zerrenda prest al daukazu?

- Errolda prest.

- Eskinan dagoenak:

- Oraintxe datoz!

Ahoa bete hortz gelditu naiz hiru urtekoak, se-

rio-serio, banan-bana, mahaiko arduraduneei izen-abizenak esaten entzun diedanean.

Lehendakaritzaren ardura daukanak, bokalak baietz esan, eta orduantxe uzten die txinurri horiei papertxoa bozkatzeko ontzian sartzen.

HAUTESKUNDEAK NAFARROAKO IKASTOLETAKO HAUR ETA GAZTE- EN ARTEAN

Nafarroako Ikastolen Elkarteak, Juul izenpean, hauteskundeak antolatu ditu. Bertan, haur eta gazteek, gehien **gustatzen zaien liburua** aukeratu dute. Beraz, Nafarroako Ikastoletako haur eta gazteak epaile bihurtu dira.

Bozka eguna, 1999ko **martxoaren 23a** izan da. Hauteskunde mahaiek, jada kontaketa eginda, ondorioak NIEra igorri dituzte. Izan ere, haurren artean lehendakari, bokalak, idazkari eta interbentoreak aukeratuak izan dira eta zeuzkaten zereginen artean, kontaketa egitea zuten.

Haur eta gazteen artean, 4.543 hautesle dira. Hautagaiak, ordea, idazle guztiak, ez baita mugarik jarri, ez hizkuntzan ezta literatur generoan ere.



o
i
h
a
r
t
z
u
n
a
k

Lau kategoritan bozkatu dute, adinaren arabera (A:3-6 urte, B:6-8 urte; C:9-12 urte; D:12-16 urte) eta horretarako, ikastola bakoitzean propio prestatutako bozka ontzietan, botoa jarri dute 3 urtetik 16 urte bitarteko neska-mutilek.

JUUL KAPAINAREN HELBURU PEDAGOGIKOAK:

- 1.- Irakurketaren zaletasuna bultzatzea. Gehien gustatu zaizkien liburuak defendatuz. Besteek aukeratutako ipuinak irakurtzeko interresa piztuz. Liburutegietan murgiltzeko aitzakia emanez.
- 2.- Bozkatzeko prozesu arruntaren ezagutza. Prozesu osoan beraiek izan dira protagonista. Haur eta gazteak izan dira hauteskunde mahaiaren arduradunak. Hautesleen errolda kontrolatu eta bozkatzeko prozesua gainbegiratu behar izan dute.

KANPAINAREN KOKAPENA:

Kanpainak izan nahi du, guk, irakasleok, lantzen dugun **irakurketaren zaletasunaren**, arlo zabal horren barruan, ekintzetariko bat.

Garrantzia du, beraz, bai gela, bai Ikastolako liburutegia funtzionala izateak. Liburuak aztertzen, aukeratzeko eta maileguan uzten, irakurri gabe bueltatzen, kritikatzeko... aukera anitz eman beharko baitiegu haurrei.

Ikasleei proiektua azaltzen diegula, interesgarria izan da, halaber, gurasoei ere azaltzea. Hauek, antzetzan, gure iritzia galdetzen digutenez, ez litzateke txarra izan herriko liburutegiak ezagutzera eta "salseatzera" seme-alabekin joan daitezela aholkatzea.

Kanpainaren aitzakia hurrek gustuko dituzten liburuak aukeratzeko izan da.

Sariak, epaiak eta aukeraketa, normalean, helduok egin ditugu. Oraingo honetan haurrak jarri ditugu epaile.

Beraz, ikasleek paratzen dituzten liburuek, **beraiek aukeratuak** izan behar dute eta ez guk irakurtzen behartuak.

Posible zen: idazle euskaldunak, ilustratzaileak, protagonistak eta abarren aukeraketa egitea.

Dauden aukera guztien artean, hauek dira aurtengo ediziorako hautatu ditugunak:

Liburuak aukeratzeko (ez une honetan ilustratzaileak edo idazleak soilik)

Aukeraketa izan dadila erabat **librea**: edozein idazlerena, jatorria edo idatzitako hizkuntza mugatu gabe.

PROZEDURA

Ikastoletan tutoreak, zein erdarako irakasleek, ikasleei kanpaina azaldu eta girotzen hasi. Azaroan egiten hasi ginen.

Ikasleek, aukeraketa librean, orain arte gehien gustatu zaizkien liburuak eta liburu horien idazlearen izena apuntatzen hasi.

Gurasoei ere kanpaina azaldu, parte har zezaten.

Tutoreak ahalbideratu denbora, ikasleek liburuaren kanpaina egin zezaten. Gehien gustatu zaizkien ipuinak komentatzen hasten ahal dira. Astero gela osoari, ikasle batek (edo gehiagok), liburu hori aukeratzeko arrazoiak azaldu dizkio. Horretarako, nahi izan diren argudioak erabiltzen ahal ziren, denak onargarriak baitira, hala nola, liburu horren pasadizuak irakurri, bai berak bai irakasleak.

Bozka mahaiak aukeratu (lehendakari, bi bokal eta idazkaria, hala nola kargu horien guztien ordekoak). Interbentore lana irakasle batek egin zuen.



Ikastola guztietan, martxoaren 23an, bozka egin ontzietan. Bozka mahai bakoitza kontaketa egiteaz arduratuko zen.

Ondorioak Nafarroako Ikastolen Elkartera (NIE) bidali.

NIEk ondorioak ikastolei jakinarazi. Prozesua Ikastolek baloratu. Hemendik aurrerako proposamenak egin.

IZENAREN ZERGATIA

Orain hainbeste hauteskunde ditugularik, gure "Liburu hauteskundeetarako" kanpainari izen bat jarri behar genion. Burura etorri zaigun izena xelebre samarra da, baina guretzat, esnahai handikoa: Juul.





GREGIE DE MAEYER, Kruibeke hirian (Flandria) jaiotzen 1951ean. Haurrentzako liburuak ilustratzetik berak idaztera pasa zen. Testua eta plastikaren artean interakzio estua du. Berak eta eskulturgile batek (Koen Vanmechelen) sortutako pertsonaierik hunkigarriena **JUUL** izeneko haurra da. Ipuin hau, sari askoren jabe izan da. Aurtengo udan, 98/7/2an, bihotzekoak jota, hil da.

Gure hauteskunde kanpainerako **JUUL** izena aukeratzea, GREGIE de MAEYER flamandarrari, nolabaiteko omenaldia egitea da.

Liburu hunkigarri hau, oraindik, ez dago euskaratua. Hori dela-eta, jada lanean jarri gara horri ekiteko.

Hona hemen Juul liburuak jasotzen dituen sariak:

“Eulen des Monats” (Bulletin Jugend und Literatur, Alemania), 1997ko maiatza.

“Luchs” saria, *Die Zeit* astekari alemanak aukeratua.

Bremen Irratiak, maiatzean, zazpi onenen artean aukeratua.

“The Withe Ravens” erakusketa ibiltarirako, Municheko Nazioarteko Gazteen Liburutegiak aukeratua.

Premio Catalonia de Ilustración 1997 ilustratzaileari, bere lehen lanagatik aipatua.

Alemanian Gustav Heineman pakerako saria, 1998an.

ONDORIOAK

Egia errateko, irakasleoi, emaitzak, hau da, “irabazleak”, gutxien axola zitzaiguna kontua zen. Prozesuak berak du garrantzia, bai ikasleari begira bai irakasleari begira, zeren denek ateratzen ahal dugu prozesuari etekin pedagogikoa.

Ikasleei, lankideen liburuak baloratzeko, gustatzeko, disfrutatzen, sentitzeko... argudioak entzutean irakurtzeko gogo bizten zitzaien. Hori ikustearekin bakarrik, helburua lortuzat eman daiteke.

Baina ez da ahaztu behar irakasleendako aberastasuna ere. Argudio guztiak onartzeak, haurren ikuspegi anitzak azalaratzea ekartzen du.

Libururik gustukoena aukeratzeko zioak, anitzak dira: protagonistarekin identifikazioak, antagonismoak, liburu oso baten balorazioa pasarte txiki baten arabera, lagunen oroitzapenak, haurren sufrenduak...



liburuak.

Liburutegiak hornitzeko gogoia ere, berpiztu zaigu.

EMAITZAK

Partaidetzari dagokionez, hagitik altua izan dela baieztatu daiteke, kategori ezberdinetan, batzuetan %90 izan delarik. 4.141 haurrek bozkatu dute.

Emaitzei dagokionez:

Botua oso barreiatua izan da. Hau da, neska-mutilek aukeratutako liburuak egile ezberdin askotarikoak izan dira. Beraz, ikasleriak erakutsi dituen interesak anitzak direla esan daiteke.

Lau kategorietan, libururik hautatuenak euskarazkoak izan dira. Gogoratu behar dugu, edozein hizkuntzatan idatzitako liburuak bozkatzeko ahal zizutela. Hala ere, goi mailletako bi kategorietan, nahiz eta lehen postuan ez, erdarazko liburuak ere hautatuak izan dira.



O i h a r t z u n a k 9

JUUL 99 ko LIBURU HAUTATUENAK

O i h a r t z u n a k

	KATEGORIAK	EGILEA	IZENBURUA	ARGITALETXEA
1	A	Denou, Violeta	Teo (Bilduma)	Timun Mas
2	A	Klasikoak	Edurne Zuri	Batzuk
3	A	Klasikoak	Txanogorritxo	Batzuk
1	B	Zubeldia, Iñaki (et al.)	Miru eta Mara	Elkarlanean
2	B	Lertxundi, Anjel (et al.)	Kilikikon	Erein
3	B	Zubizarreta, Patxi	Midasen eraztuna	Erein
3	B	Barandiaran, J. M.	Patxi Errementaria	Elkarlanean
1	C	Atxaga, Bernardo	Bambulo	Erein
2	C	Ormazabal, Joxean	Fernando Amezketarra	Elkarlanean
2	C	Lindo, Elvira	Manolito Gafotas	Alfaguara
3	C	Stine, R.L.	Hotzikarak	Ediciones "B"
1	D	Mendiguren, Xabier	Irakasle alu bat	Elkarlanean
2	D	Hinton, Susan	Rebeldes	Alfaguara
3	D	Ormazabal, Joxean	Kittano	Elkarlanean

	ADINA:	EMANDAKO BOTUAK	PARTADITZA INDIZEA
A KATEGORIA	3-6 urte bitartekoa	588	%75,97
B KATEGORIA	6-9 urte bitartekoa	1271	%98,76
C KATEGORIA	9-12 urte bitartekoa	1299	%97,89
D KATEGORIA	12-16 urte bitartekoa	983	% 85,10
		OSOTARA 4141	

	BOTU NULOAK	BOTU ZURIAK
A KATEGORIA	9	1
B KATEGORIA	30	1
C KATEGORIA	10	1
D KATEGORIA	17	18

ANAYA HARITZA

ARGITALETXEA

Isabel Morueco
Anaya Haritza



IRATXO BERDEA, LIBURU ZOPA ETA ESPAZIO IREKIA sailek Euskaraz dagoen haur eta gazte literaturaren hiru liburu-sail adierazgarri eratzten dituzte. Lehenengo biak haur literaturaren barne daude eta, 6-12 urte bitarteko haurrentzat egokiak dira. Espazio Irekia ordea, adierazpen maila eta lantzen diren gaiak direla-eta, gazte literaturaren liburu-saila dugu, hau da, 13 urterekin hasten den irakurketa eta heldutasuneraino luzatzen dena.


LIBURU ZOPAk bestalde, gaurregungo haur literaturarik oneneko hautapena eskaintzen du, nazioartean prestigio handia duten Estatu espainoleko autore zein atzerritar idazleek idatzitakoa. Bere testuen aparteko kalitateari diseinu erakargarria eta umorez, sinpleziaz eta samurtasunez beteriko balio handiko ilustrazioak gehitu behar zaizkio. Pertsonaje, gai eta egoerak, haurtzaroko sentimenduak, bizitza ulertzeko era, ilusioak eta dezepzioak islatzen dituzte. Lau koloreko

zerroek irakurlearen adina islatzen dute.

horia: sei urte
laranja: zortzi urte
berdea: hamar urte
urdina: hamabi urte

Hamar izenburuk osatzen dute liburu-saila, Hiru euskaraz idatzitakoak: **Gure poesia, Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnan** eta **Botoi bat bezala/Como un botón** eta zazpi itzulpen: **Jogurt eragiketa, Sardina latak sirena, Zigor eta postetxeko lehoia, Euli-hegoak Anxorentzat, Txano gorri, berde, hori, urdin eta zuri, Katu Jaunaren negozioak** eta **Txapiro berdea**.

IRATXO BERDEA beste haur liburu-saila dugu. Berau gaurregungo literaturaren espainiar autorerik adierazgarrienek idatzitako hautapenez osatuta dago. Bertan gai ugari topa dezakegu, fantasia eta abenturarekin hasi eta errealismoraino. Giza erlazioak aurkezteko era, ekintzaren eskenatokia (gehien bat gure geografiaren leku bereziak) eta hizkuntzaren trataerak lortzen dute bai irakurlea pertsonaje eta egoerekin identifikatzea, bai gorako interesarekin irakurtzea. Liburu-



sail hau 6-12 urte bitarteko haurrentzat ere egokia da. Gaurregun euskaraz argitaratutako sei izenburuk osatzen

dute: **Nire osaba Teo, Hegaz egiten ez zuten txorien zuhaitza, Boni Martinen istorioa, Esmirna magoa, Haizearen faroa** eta **Ez omen da egon inor bertan**.


ESPAZIO IREKIA gazte literatur saila, gaurkotasun handiko narrazio bilduma dugu. Liburuek biltzen dituzten gaiak gaurregungo gazteek daukaten bizitza eta sentitzeko era (bere kezekin, gatazkekin, ametsekin eta desioekin) islatzen dute. Adiskidetasuna, amodioa, elkar ulertzea, belau-naldien arteko kideetasunak eta aldeak, autoestima, arriskua, gizarte justizia, abentura eta umoreak liburu hauen orrialdeak betetzen dituzte "atea irekita" uzten duen errealitatea erakutsiz. Akzioen arintasunak, zeinean zinemaren eragina nabaritzen den, gertakarien inguruneak eta hizkuntzaren trataerak, irakurlea protagonistarekin identifikatzea lortzen dute. Oso irakurketa atsegina eta adin horietan dauden gazteentzat (irakurtzeko zaletasun gutxikoak) osatzen dute: **Detektibe guztiak Flanagan dira, Ez garbitu eskuak Flanagan, Lau katu, Esan Super eta Kito, Jack berriro, Benetakoa bezala, Iruzurtia, hegaz egin nezakeela erakustearren itzuli nintzen** eta **Hutsaren hurrengoa**.



A r g i t a l e t x e a k

Sariak

1999ko HAUR eta GAZTE LITERATURAKO SARI NAZIONALA



Hezkuntza eta Kultura Ministeritzak ematen duen Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala, 1999. urtean Vicente Muñoz Puelles idazle balentziarrak irabazi zuen **Oscar y el león de correos** liburuarekin. Liburua Anaya argitaratu zuen

1998. urtean, eta euskaraz ere **Zigor eta postetxeko lehoia** izenburuarekin Anaya Haritzak argitaratu zuen urte berean.

Ilustrazio sailean, berriz, Oscar Villán ilustratzaileak lortu du Sari Nazionala **O coelliño branco** (Kalandraka argitaletxea) liburuari egindako ilustrazioengatik.

1999ko LAZARILLO SARIA

Haur eta gazte literatur saririk zaharrena, dagoneko desgertuta dagoen "Instituto Nacional del Libro Español"-ek antolatatu zuen 1958. urtean, haur eta gazteentzako liburu onak kaleratzeko helburuaz. 1986. urteaz geroztik OEPLI da sari hau ateratzen duena, hala ilustraziorako nola literatura sorkuntzarako, ere Hezkuntza eta Kultura Ministeritzaren laguntzarekin. 1999ko sariak honako lan hauek irabazi dituzte:

Ilustrazio sailean, Pablo Amargo **No todas las vacas son iguales** lanari egindako ekarpenengatik.

Aksesitak jaso dituzte Rocío Martínez **Ratoncito Miguel arregla palampalatas** eta José Antonio Tassies **Volando al revés** lanengatik.

Literatura sorkuntzan, berriz, Marilar Aleixandrek **A banda sen futuro** lanagatik lortu du Lazarillo Saria.

Aksesitak izan dira, Jordi Sierra i Fabra **Los hombres de las sillas** eta Carmen Gómez Ojea **Hija de muerta** lanekin.

HANS CHRISTIAN ANDERSEN SARIRAKO ESTATU ESPAINOLEKO HAUTAGAIK

Hans Christian Andersen Sarirako Estatu Espainoleko hautagaiak aukeratzeko epaimahaiak, idazle eta ilustratzaile atalei dagokienean, Bernardo Atxaga eta Miguel Calatayud aukeratu ditu hurrenez hurren.

Aurtengo epaimahiaren lehendakaria Jay Heale hegoafrikarra izango da eta honetarako laguntzaile lanetan: Kanada, Txile, Frantzia, Alemania, Iran, Herbeherak, Rusia eta Esloveniako adituak izango ditu.

Sari honen berri Boloniako azokan emango da 2000ko martxoaren 29an.

LABAIEN NARRAZIO SARIA

Labaien Narrazio Lehiaketaren irabazlea Txema Garcia-Viana izan da, **Balatza, Tximistaren alaba** abentura narrazioari esker. Bigarren aldia da idazle honek Labaien Narrazio Saria jasotzen duena. Alberdania argitaletxeak martxo aldean argitaratuko du lan hori.

"Istorioan bigarren mailan jartzen ditut gizonezkoak, eta ez zait zaila egin paperak iraultzea. Protagonista neska dela-eta, aukera eman dit egoera batzuk sortzeko" (Euskaldunon Egunkaria. 2000ko urtarrilak 21)

BAPOREA SARIA

1999ko Baporea Saria Joxerra Garzia Legazpiarrak irabazi du, **Lan egun eta gau bat Dudan** lanarekin. Saria milioi bat pezetakoa da eta SM argitaletxeak argitaratuko du.

Joxerra Garzia sari honen lehenengo edizioan (1985ean) ere irabazle suertatu zen, **Malen Laberinto Madarikatuan** lanarekin.

APIRILA SARIA

Apirila Saria, Argitaletxe Elkartuak antolatutako saria da. Argitaletxe Elkartuak ondokoak osatzen dute: Bromera eta Tänden (balentziarrak), Elkarlanean (euskalduna), Galaxia (galegoa), La Galera (katalana), Libros del Peixe (asturiarra) eta Xordica (aragoiarra). Argitaletxe Elkartuak egiteko ideia, Estatu espainolean dauden hizkuntza minoritarioetan idazten

eta ilustratzen dituzten autore eta ilustratzaileek lana esparru gehiago izan zezaten sortu zen.

Argitaletxe elkartuak orain 4 urte zen, eta argitaratu zuten lehenengo bilduma "Zazpi" izan zen (6 urteko haurrentzat zuzendua), dagoeneko 20 liburu badauka bilduma honek, hauetatik, 5 idazle euskaldunenak dira: Joxan Ormazabal (**Txoria zezenaren adargainean**), Seve Calleja (**Mari Joseri zergatik deiten diote Joxe Mari?**), Xabier Mendiguren Elizegi (**Zergatik ez du kantzatzen txantxangorriak**), Juan Kruz Igerabide (**Ametsontzi**), Patxi Zubizarreta (**Ostiraletako opila**).

Oraingoan, Apirila Saria sortu dute, gazteentzako (12-16 urte) narratibaren sorkuntza bultzatzeko. Sari-aurkezteko Estatuko 6 hizkuntzetako baten egin daiteke, gero irabazlea 6 hizkuntzetara itzuliko delarik.

1999ko irabazlea eta, beraz Sari honetako lehen Jaume Cela izan da, **Silencio, en el corazón**-ekin. Euskaraz **Isiltasuna bihotzean** izenburuarekin argitaratu da.

Ikastaroak / Jardunaldiak

HANS CHRISTIAN ANDERSEN. ERAKUSKETA

Pasa den urrian "**Hans Christian Andersen. Vida y Arte**" izenburuarekin erakusketa egon zen Salamancako Fundación Germán Sánchez Ruipérez-en. Erakusketa ibiltari hau Odense (Danimarka) hiriko museokoa da eta Andersen-en bizitza eta bere idazle karrera ilustratzen duten 20 panel-er osatua dago. Erakusketan idazle unibertsalaren bizitza jarraitu ahal dugu: 1805. urteatik, hots, Odensen jaio zenetik, Danimarka eta Europan emandako urteez, Copenhagen, 1875. urtean hil zen arte jarraitzen du.

Erakusketa hau biblioteka, ikastetxe edota erakundeen esku dago.

Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko:

Fundación Germán Sánchez Ruipérez
C/ Peña Primera 14-16
37002 Salamanca
Rafael Muñoz (kontakturako pertsona)
Tfn: (923)269662
Fax: (923)216317
P.e. rmuñoz@fundaciongrs.es

"LAU LIBURU HELBURU", umeen artean irakurzaletasuna sustatzeko kanpaina.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak "Lau Liburu Helburu" kanpaina prestatu du, umeak literaturara hurbiltzeko. Ekimen horretarako, haur literaturan oso ezagunak diren lau idazlek eta lau ilustratzailek lan bana prestatu dute, honakoak:

Mariasun Landa (testua) eta Elena Odriozolak (ilustrazioak): **Amona, zure lholdi**.

Txililikuk eta Jokin Mitxelenak: **Aitonaren lora**
Patxi Zubizarretak eta Iñaki Martiarenak: **Titanick**
Juan Kruz Igerabidek eta Belén Lucasek: **Ttolo maitea**

Kanpaina hau 8-11 urte bitarteko hurrei zuzenduta dago. Liburu hauez gain, irakaslearen gida ere atondu da. Eskola, Udal Biblioteka, Irakasle Eskoletan eta Haur Literaturarekin zerikusia duten elkarte-erakundeetan banatuko da.

B
e
r
r
i
a
k

HAUR LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA

2000.eko apirilak 2

Urtero bezala, apirilaren 2an IBBYk (International Board on Books for Young People), HAUR LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA ospatu zuen, Hans Christian Andersen danimarkar idazlearen jaiotza gogoratzeko.

Urtero aipatutako Elkarte horretako kide den herrialde batek beregain hartzen du munduko haur guztiei zuzendutako kartela eta mezua egitea.

Aurten Finlandiari egokitu zaio lan hau egitea. Kartela Mika Launis ilustratzaileak egin du eta mezua, aldiz, Hannele Huovi idazleak.

SEKRETUA LIBURUAN DAGO, LIBURUAN SEKRETUA DAGO

Jakinminez eta egonezinez beterik nengoen. Agure handiaren oinetara eserita, bere kantua entzuten ari nintzen. Abesten zuenean harriak hain arin bihurtzen zirenez, ur gainean flotatzen zuten. Abesten zuenean, uharteak lakuko uretan barrena ibiltzen ziren. Abesten zuenean, zerua izarrez betetzen zen. Abesten zuenean, goian zegoena behera zihoan eta behekoa gora.

— Noiz bihurtuko naiz egiazko azti? — galdetu nion, belusezko kaparen ertzetik tiraka.

— Laster – esan zuen Agure Handiak eta kantuan jarraitu zuen.

Bere katuaren ilea dirdirka hasi zen. Buztana tente jarri zitzaion. Nik ikusterik ez nuen zerbaite ikusten zuen.

— Gazteegia izateagatik al da? — galdetu nuen jakinminez.

— Ez – erantzun zuen Agure Handiak eta kantuan jarraitu zuen.

Txori esploratzaile bat aztiaren sorbaldan pausatzen zen eta mokoaz lumak txukundu zituen. Gero burua biratu eta adi-adi begiratu zidan bere txoribegiez.

— Baxua izateagatik al da? — nire galdera.

— Ez. Ez dago altueraren baitan – esan zuen Agure Handiak eta abesten jarraitu zuen. Bere kantuak dardarka jarri zituen zuhaitzen adaburuak.

Haizeari indartsuago putz eginarazi zion eta laster txistuek eta marmarrek inguratu gintuzten. Haizeak adar iharrak bota zituen.

Zuhaitzen kurrinka bortitzek beldurtu egin ninduten eta burua makurtu zuen oinetara begiratzeko.

— Behatzak txikiegiak al dauzkat? — galdetu nuen.

— Nola esan duzu? — harritu zen aztia, niri begirada harritua egotziz.


Zuhaitzak isildu egin ziren.

Eskuak eta behatzak erakutsi nizkion.

— Azti batek esku handiagoak izan behar al ditu? — galdegin nuen.

— Ez – esan zuen Agure Handiak eta irribarre txiki bat egin zidan.

Sastraka batetik lore bat hartu eta usaindu egin nuen. Usan goxoa zeukan.



— Azti batek sudur handiagoa behar al du? — itaundu nuen.

— Ez – Agure Handiaren erantzuna. Barregura zeukan.

Jakinminez eta egonezinez beterik nengoen. Ez nuen gehiago zain egon nahi. Jaiotzetiko aztia nintzen, baina indarra falta zitzaidan. Ez nekien nola eskuratu. Katuaren ilea distiratsuari begiratzen nion. Aztiak sorgindutako harriak airean hegan zebiltzan. Berrito galdetzea erabaki nuen:

— Noiz izango naiz...? — ekin nion berriz.

Zakutik liburu bat ateratzeko makurtu zen orduan Agure Handia.

Zuhurtasunez irribarre egin eta esan zidan:

— Sekretua liburuan dago, liburuan sekretua dago.

Hannele Huovi

B
E
R
R
I
A
K

Materialak

HAUR BIBLIOTEKA CD-ROMEAN

Salamanca Fundación Germán Sánchez Ruipérez-ek "Biblioteca Infantil CD"-aren edizio berria kale-ratu du. CD berrian horretan, 50.724 erregistro bibliografiko publikatu dituzte, Salamanca Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko zentruaren katalogoe-tatik atera dituztenak. Dokumentu desberdinak bil-tzen ditu: liburuak, bideoak, soinodun errejistroak, cd-romak, haur literaturari buruzko dokumentuak, irakurketaren eta haur eta eskoletako biblioteken animaziorako dokumentuak...

Centro de Documentación e Investigación de Lite-ratura Infantil y Juvenil

Sánchez Ruipérez

C/ Peña Primera, 14-16

37002 Salamanca

Tfn: (923)269662

Fax.(923)216317

P.e. fgrs.salamanca@fundaciongrs.es

BEHINOLA ALDIZKARI BERRIA JAIO DA.

Behinola aldizkari berria jaio da. Hona Manu López idazleak eta Behinola aldizkariaren koordinatzaileak dioe-na hitzaurrean, besteak beste:

"Azken urte honetan Galtzagorriren barruan mamituta-ko proiektu baten ondorioa da eskuartean dauzkagun **Behinola** honen lehenengo zenbakia. Gure helburua Haur eta Gazte Literaturari falta zitzaion bultzada ematea da: bultzada kritikoa. Askotan irakurri duzu, han eta hemen, euskal HGL oso osasuntsu bizi dela, batere gaitzik gabe, argitaratzen diren jatorrizko obrak ugari direla, eta itzulpe-nak are ugariagoak. Eta balitike zu bezalako asko, irakas-le, bibliotekari, guraso edo literaturzale dela, ugaritasun horretan galduta sentitzea, iparrorratzik gabe. Hain zuzen ere, mundu konplexu hori nolabait ulertzen laguntzera da-tor **Behinola**.

... **Behinola** aldizkariak independentea eta zabala izan nahi du, zure kezka eta gogoeta guztien leiho. Alde horre-tatik, plaza izateko gogoarekin jaio da: hemendik bertatik, nahi duzuna idatzi eta bidaltzeko gonbitea doakizu, **Behin-hola** guztion artean egin eta hobetu dezagun."

Galtzagorri Elkartea

885 posta kutxatila

20080 Donostia

hgl@clientes.euskaltel.es

galtzagorri@wanadoo.fr

HAUR, GAZTE ETA ESKOLAKO BIBLIOTEKEN VI. JARDUNALDIEN AKTAK

Animar a escribir para animar a leer izenburuare-kin, Fundación Germán Sánchez Ruipérez-ek Haur, Gazte eta Eskolako Biblioteken VI jardunaldien aktak salgai jarri ditu.

Centro de Documentación e Investigación de Lite-ratura Infantil y Juvenil

Sánchez Ruipérez

C/ Peña Primera, 14-16

37002 Salamanca

Tfn: (923)269662

Fax.(923)216317

P.e. fgrs.salamanca@fundaciongrs.es

HAUR LITERATURA ESTATU ESPAINIARREAN

Haur Literaturak estatuan daukan egoera eta gaur arte jasan dituen gorabeheren berri atzerrian emateko helburuz, Asociación Española de Amigos del Libro Infantil y Juvenil, Kultura Ministeritzaren la-guntzarekin **La Literatura Infantil en España** liburux-ka argitaratu du.

Asociación Española de Amigos del Libro

C/ Santiago Rusiñol, 8

28040 Madrid

CATÁLOGO DE LA NARRACIÓN ORAL EN ESPAÑA


Guadalajarako Haur eta Gazte Literatur Minte-giak, hiri honetako Ipuin Maratoia antolatzen due-nak, argitara berri du **Catálogo de la narración oral en España**. Katalogo horretan Estatu Espainiarrean dauden ipuin kontatzaileak agertzen dira, baita atze-riko batzuenak ere (gehienak, hegoamerikarrak).

Biblioteca Pública de Guadalajara

Plaza de los Caídos, 10

19071 Guadalajara

Telf. 942 211787



ko dinamika ahulak. Sarritan aniztasunaren trataera data zehatz batzuetarako egin behar diren dokumentu idatzi batzuetan geratzeko arriskua ere somatzen dut.

Irakasle batzuei aniztasuna tratatzeak: lana planifikatzeak, kontsultak egiteak, materialak prestatzeak, familiekin egoteak.... eskatzen dien **denbora eta dedikazioa kontutan ez hartzea ikastetxeko antolakuntzan eta irakasle hauen ordutegian.**

Irakasleen arteko **koordinazio sistematikoaren falta**, ardurak garbi ez izatea edo hartu nahi ez izatea.

Laguntza/Orientazio Zerbitzu eta irakasleen arteko desadostasunak: eginbeharrak elkarri leporatu, lan-harreman desegokiak...


Kasu batzuetan gizabaliabide espezifikoan gabezia.

4.- Zein alderdi positibo ikusten diozu aniztasunaren trataerari?

Nire ustez, aniztasunaren trataerak orokorrean **lan pedagogikoaren hobekuntza** ekarri du eta dakar etengabe. Eguneroko lanaren aurrean proposamenak bideratu aurretik ikasleen aurrezagupenetan oinarritzen da irakas-jarduera norentzako eta zertarako den kontutan hartuz, zalantza barik. Erakusten denaren funtzionalitatea asko baloratzen da.

Edozein etaparen **hasieran hasierako** ebaluaketari garrantzi handia ematen zaio **premiak lehenbailehen identifikatu nahian.**

Irakasle taldearen erantzunkizuna irakasle bakarraren erantzunkizunaren gainetik jarri da.



HELEN OXENBURY. *Tiqui, tiqui, tac*. Barcelona. Juventud, 1987

Aniztasunare

Gasteizko "Rogelia de Alva

IKASTEKO ZAILTASUNA DUTEN IKASLEEI LAGUNTZEKO EGITEN ARI DIREN ESPERIENTZIA

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe hau Gasteizko El Pilar auzoan dago eta bertan 185 ikasle daude, gehienak D eremuan.

Klaustroan, tutore eta espezialisten artean, 22 irakasle daude. Plantila egonkorra izateak gero eta koordinazio sistematikoa eta inplikazio-maila garrantzitsua ahalbidetzen ditu. Gainera, hezkuntza-esperientzia partekatu honetan irakasleek egindako ibilbideak lanaren kalitatea hobetzen laguntzen die, hau da, irakaslaña aztertzen dute, beste Ikastetxe batzuetako esperientziekin alderatzen dute, eta ikasteko eta irakasteko prozesuan sartzen diren aldaerei buruz dakitena sakondu eta gehitzen dute. Dagokion gogoeta eta hausnarketa eginez betiere.

Ikastetxeko irakasleentzat betidanik dagoen aniztasunari erantzutea oso garrantzitsua izan da. Hau dela eta, azken urteotan, zenbait egokitzapen edota aldaketa egin da:

ANTOLAKETA MAILAN:


- Langile espezializatuen giza baliabide eta laguntzen antolaketa: aholkularitza, PT, logopeda, laguntzako irakaslea...

Baliabide horiek optimizatu ahal izateko, Laguntza Zerbitzua sortu da, baina honetaz aurrerago hitz egingo da.

- Espazio eta ikasgelen antolaketa: horretarako espazioak prestatu dira lantegiak, taldekatze malguak... egiteko. Laguntza Zerbitzuentzat ere prestatu da lekua.

Logopedak eta laguntza-gelak aurrez ere bazituzten beren lekua.

- Irakasleen ordutegiaren antolaketa: koordinazioa, talde malguen eta lantegien antolamendua ahalbidetzeko, etab.



Luis Elejalde ikastetxea

en trataera

o-Luis Elejalde" Ikastetxean

Blanca Martinez de San Vicente (Zuzendaria)

Jose Sarasua (Ikasketa-buru)

Ana Rosa Laorden (Aholkularia)

- Baliabide materialen antolaketa: Banatuta daude Laguntza Zerbitzuko gela, laguntza-gela eta logopedaren gelaren artean: artikulatu monografikoak, hezkuntza-aldizkariak, liburuak... horietako batzuk aniztasunaren trataerari buruzkoak, erabil daitezkeen estrategiak, etab.

Badira, halaber, programazio-ereduak, proiektuak, ekintzak, baita materialak eta eskuetarako jokoak ere, erositakoak edo irakasleek eginak.

PRESTAKUNTZA MAILAN:

- Ikastetxeko irakasleek beti izan dute kezka prestakuntzaz, berrikuntzaz, eta esperientzien truketzeaz. Horregatik, esperientzia edota planteamendu berri guztiak hastean, bilatu izan da:

* Prestakuntza teorikoa: Ikastetxean bertan prestakuntza-ikastaroak antolatu dira. Aniztasunaren trataerarako prestakuntzan Eskoriatzako Irakasle Eskolako aditu bat izan dugu. Halaber, prestakuntza osatu eta hobetzeko, kanpoko ikastarotan ere izan dira irakasle batzuk.

* Beste ikastetxe batzuetako esperientziak ezagutzea. Horretarako, eta eskola-orduen barruan, irakasle-taldeek ikastetxeak bisitatu dituzte: Aretxabaletako Kurtzebarri, Antzuolako H.I., Gautenako gela bat, Gasteizko P.I. Barrutia ikastola...

Hartutako ekarpenak Klaustroari aurkeztu zaizkio balioetsi eta hausnar ditzan. Abiapuntu horrekin, ikastetxearentzat egokienak ziren aldaketak eta hobekuntzak egin dira.

HEZKUNTZA MAILAN:

- Antolaketa eta prestakuntza-gaiek bat egiteak zuzeneko eragina izan du IPC.n eta Ikastetxeko Planean, baita ikasgeletan egindako lanean ere. Horregatik, aniztasunaren trataerari dagokionean sakondu ahala, aipaturiko dokumentu horie-

tan aldaketak sartu dira, baita hainbat metodologi estrategiaren aplikazioan ere. Besteak beste, hauek dira Ikastetxeko Proiektu curricularrean, Urteko Planean eta hezkuntza-lanean zertu diren hobekuntza edota aldaketak:

Ikastetxeko proiektu curricularrean::

Metodologiari dagokion atalean zera agertzen da:

- Askotariko estrategiak hainbat egoeratan ikasleen aniztasunari erantzuteko irakasleek erabiliak: proposamenak egin eta hartzeko, erronkak ezartzeko, zuzentzeko, ikasleen arteko eta irakaslearekiko harremanak lortzeko... autonomia indartzeko, norberaren jardura arautzeko...

- Motibaziorik ezak, autokontrolrik ezak, ziurtasunik ezak, autoestima kaskarrak eragindako harreman-estragiak, portaera berezi batzuei erantzuteko lagungarriak. Estrategia horien artean daude:

Erabiltzen dugun hizkuntzari garrantzia ematea.

Ikaslearekin hitz egitea.

Bere ikaskideen, gurasoen... aurrean balorazio positiboak egitea.

Adorea emango dioten esaldiak erabiltzea.

Arrakastaz egin ditzakeen jarduerak eskaintzea, hasieran ahalegin txikiak eskatuz.

Lortzen ari denaz informazioa ematea.

Egiten duen ahalegina balioestea.

Egiten duen aurrerapenaren berri ematea.

Ikaslearentzat errazena den hori egiteko eta hor adierazteko aukera ematea.

Inoren aurrean nabarmen ez uztea.

Ez balioestea bere akatsak orokorrean, baizik eta ebaluatzen ari garen trebetasunari buruzkoak bakarrik.

Nolabaiteko aniztasuna duen ikaslearengana gelakideen sentiberatasuna areagotzea, harenganako laguntza, begirune eta ulertze-jarrera bultzatuz.

Gai monografikoa

- Estrategia metodologikoak, ikastaldeak duen aniztasunari erantzuteko erabil daitezkeenak:

Taldekatzeak, era askotakoak: tale handia, talde txikia, talde malgu homogeneo edo heterogeneoak, norberaren jardura, tutorizazioa, lankidetzeta...

Lekuaren eta denboraren banaketa ere zehaztuta dago, baita erabiliko diren materialak ere.

- Ikuskera orohartzaile eta konpentsatzailea: horien bidez gaitasunak, trebetasunak eta jarrerak indartu nahi dira, baita aukera-berdintasuna eskaini eta kasuaren arabera aurkezten diren zailtasunak konpentsatu ere.

Aniztasunari dagokion atalean: Ikastetxean agertzen diren aniztasun-adierazpenak esplizitatzen dira, horiei erantzun nahi zaielarik:

- Norbanako mailan: Interes, motibazio eta jarrerekin lotuta daudenak, baita ikasteko erarekin, lan-erritmoarekin eta gaitasunarekin lotuta daudenak ere.

- Talde baten partaide gisa: Sexu batekoa ala bestekoa izatea, gutxiengo etnikoen partaide izatea, kultur eta erlijio-gutxiengoetako partaide izatea...

Ikastetxeko planean:

Aurkituriko kasuei erantzun zehatzagoa emateko, hona hemen urratsak:

1.- Hasierako Plana: Kasua detektatu ondoren:

- Gurasoekin hitz egitea.
- Kasu batzuetan, gurasoen baimenarekin, eskabide-orri

bat PATera bidaltzea.

- T. Multiprofesionalarekin bilerak egitea.

- Laguntza Zerbitzukoekin hitz egitea. Batzuetan, kasuaren arabera, bileretan parte hartzen dute T. Multiprofesionalen aholkulariek, espezialistek, logopedak... Honela, hobeto ezagutzen da ikaslea eta zehatzago mugatzen da eskuhartze-ko arloa.

- Bileretan esandakoa eta hartutako erabakiak aktetan jasotzea (Aholkulariak).

- Laguntza Gelaren ezaugarriak, funtzioak, beteko dituen helburuak...

- Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleekin jarraitu den programa orokorra.

- Gurasoekin izango diren harremanak, elkarriketak...

2.- Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen integratzearen plangintza:

Atal honetan geratzen da zehaztuta ikasle jakin batek HPBak baldin baditu, egingo den planteamendua eta urratsak:

Hasierako Plana: Dagoeneko adierazi direnez gain:


Beharko diren laguntza-motak (laguntzaile, fisioterapeuta...).

Ikaslearen ordutegia ezartzen da: laguntza-gelara joan behar duen ala ez, zenbat denbora, zertarako, noiz...

Tutorearen inplikazioa, ikasgelan eta laguntza-gelan behar duen partaidetza...

Familiarekiko harremana.

Sentsibilizazioa: Ikaslea ohiko gelan dagoenean, garrantzitsua da berarekiko harremana bultzatzea, giro egokia sor-



Luis Elejalde ikastetxea



Luis Elejalde ikastetxea

tzea. Horretarako, erabaki behar da:

- Nola jokatu den berarekin ikasgelan, horren arabera jokatu baitute ikasleek ere.
- Berari buruz informazio orokor eta ulerterraza emango da, berezko egoerez baliatuz eta betiere naturaltasunez.
- Ikaslearekin komunikazioa ezartzeko erabil daitezkeen estrategiak, zailtasunak dituen puntuetan laguntza eskaintzeko (adibidez, eskolan lekuz mugitzeko, laguntza eskatzeko...).

Integrazioaren kalitatea: Hona hemen horretarako irizpi-deak:

- Sozializazio mailan, autonomia edota ezaguera-mailan aurrerapenak ematea.
- Besteekiko harremanak onak izatea.
- Ikasgela arruntean dagoenean, parte-hartzea lortzea.
- Ikasten duena funtzionala izatea, etorkizunerako balio izatea.

3.- Detektaturiko ikasleen jarraipena:

Kasu bakoitzaren jarraipena egiteko, ordutegia antolatu erantzun egokia eman ahal izateko, eta giza baliabideak eta baliabide materialak errentagarri bihurtu. Hona hemen horretarako urratsak:

Ikasturte bakoitzaren bukaeran: Ikasgelaren diagnostikoa egin orokorrean eta ikasle bakoitzarena bereziki. Informazio-bilketa aholkulariaren eta P.T.-Pedagogia Terapeutikoko espezialistaren laguntzaz egiten da. Horretarako, galdeketa-fitxa bat dago prestatuta, eta bete ondoren Laguntza Zerbitzuko artxibategian gordetzen da.

Datuak biltzeko fitxaren eredua:

Zikloa.....

Maila.....

Ikasturtea.....

Tutorea:.....

Ikasgelaren ikuspegi orokorra:

(Giroa; lanarekiko, zailtasunekiko, harremanetarako... jarrera; motibazioak, lan-erritmoa, gaitasunen garapen-maila...).

Zikloa.....

Maila.....

Ikasturtea.....

Tutorea:.....

Ikaslea:.....

Datu orokorrak:

Interesak, motibazioak, lan-erritmoa, lanarekiko jarrera, lagunekiko harremanak, irakasleekikoak, etxeoak...

Datu espezifikoak:

Ikaskuntzan:

(Ea zailtasunik duen, nolakoa, zein arlotan.

Ikasgelan laguntza berezirik duen. Baiezko kasuan, orain arte zer egin den, zer behar duen...

Ikastetxetik kanpo laguntza berezirik duen, zertan...

Errepikatzailea bada, CEI duen ala ez, zer-nolako erantzuna ematen zaion).

Jarrera aldetik:

(Bere portaera aldatzeko programaren bat ezarrita baldin badago, zehaztu zein den, horren bilakaera, aurrerapenak...)

- Hurrengo ikasturtearen hasieran: Tutoreak, Laguntza

Gai monografikoa

Zerbitzuaren bidez, ikastaldearen informazioa jasotzen du orokorrean, eta ikasle bakoitzarena bereziki.

Gainera, detektaturiko kasuarekin zerikusia duten espezialista eta gainerako profesionalekin koordinazioa ezartzen da.

Kasu horietan koordinazioa nahiz tratamendua ahalbidetzeko, eskolako ordutegia antolatzen da.

- Ikasturtean zehar:

- Koordinazio-bilerak egiten dira: horietan tutoreak, espezialistek eta Laguntza Zerbitzukoek zera aztertzen dute:

Portaera-arazoei, motibaziorik eta autokontrolik ezaren eta autoestima kaskarraren ondoriozko jarrerari erantzuteko hartu diren neurriak.

Ikasteko zailtasunak dituztenei ematen zaien erantzuna, ikasgela barruan nahiz kanpoan.

- Kasu batzuetan Talde Multiprofesionaleko norbaiten laguntza izaten da.

- Hiruhileko bakoitzaren bukaeran, irakasle-taldea biltzen da balioesteko bai taldearen martxa orokorrean, bai detektaturiko kasuena. Horren arabera, beharrezko egokitzapenak planteatzen dira. Bilera hauetan, jarraipen zehatzagoa eskatzen duten kasu berriak ere kontuan hartzen dira, bai ikasteko arazoak dituztelako, bai bestelako arazoak —portaera, motibazioa, eskolara etortzen huts egitea...— dituztelako ere.

- Ikasturtea bukatzean, gorago aipaturiko diagnostikoa errepikatzen da berriro.

Jarraipen honen sistematizazioa Laguntza Zerbitzuaren laguntzaz egiten da.

LAGUNTZA ZERBITZUA:

Esperientzia berria da Ikastetxearentzat. Nork osatuko duen eta izango dituen eginkizunak zehaztuta egon arren, proba gisara martxan jartzean, oraindik ez daude Ikastetxeko Planean

sartuta. Kontuan hartzen dira, ordea, Zerbitzuan bertan, tutoretza bakoitzean eta irakasle guztien aldetik.

Aholkularia, P.T.ko espezialista eta Ikasketa-burua dira partaideak.

Bere egitekoen artean, Ikastetxeko irakasleekin hainbat erakundetako profesionalekin (PAT, UPI-Haur Psikiatri Unitatea, Cri...), eta CEI duen ikasle horrek Bigarren Hezkuntzako ikasketak egingo dituen ikastetxeko irakasleekin lotura zuzena dutenak daude. Besteak beste, hauek aipa daitezke:

. Informazioa biltzea, premiei erantzutea, detekzioak...

. Tutore bakoitzarekin lana antolatu eta koordinatzea.

. Detektaturiko kasu bakoitzaren jarraipena egitea.

. Ikasgelako hasierako ebaluazioan laguntzea.

. Irakastaldearen bileretan aktiboki parte hartzea, detektaturiko kasuetan indartze-neurriak erabakitzeke, jarraipena egiteko...

. CEI-Curriculum Egokitzapen Indibidualizatu bat egiten lagundu.

. Kasu bakoitzean esku hartzen duten irakasleekin ebaluazio-saioak ezarri, indartu eta dinamizatu...

Zerbitzu honetan artxibo bat antolatu da. Bertan maila guztiak agertzen dira, bakoitzean detektatu diren kasuak eta egin dena edota egiten ari dena idatzita jaso delarik.

Horrela, Laguntza Zerbitzukoek ikastetxeko ikuspegi zehatza dute, orokorra eta gela bakoitzarena. Gainera, antolamendua ikasturtearen hasieratik presta daiteke, bat-batekotasunean ibili gabe.

Zerbitzu honi ikusten zaizkion alde onak, besteak beste, hauek dira:


Irakasleei eta koordinazioari dagokionean:

- Irakaslearentzat oso eskertzekoa da lehen unetik jakitea norantz jo behar duen. Hau da, laguntza bideratuta dago Ikastetxean bertan, eta ez da ikusten lehen unetik kanpoko laguntzeara jo beharrik.

Gainera, talde-lana egiten da.

Detektaturiko premiei erantzuteko irakastaldearen iritzia dago, eta oso aberas-

Luis Elejaide ikastetxea



garria da iritziak trukatu eta alderatzea: alde batetik, irakaslea ohartzen delako bere esku-hartze edo laguntza ez dela bere kontua bakarrik. Bestalde, arazoa duen ikasle hori gero eta hobeto ezagutzen delako.

Halaber, dinamika horrek guztiak irakaslearengan jarrera irekiago eta adeitsuagoa eragiten du, bere oharpenak jasotzeko, taldeko besteen datuekin alderatzeko, bere kezkek adierazteko...

- Ikasleei dagokienez, Laguntza Zerbitzuaren bidezko antolaketa-mota honi esker, detektaturiko kasu bakoitzari lehen-lehenengo mailetatik erantzuten zaio eta ia berehala.

Halaber, eta aurrez esan den bezala, detektaturiko kasu bakoitza hobeto ezagutu eta jarraipen hobea egin daiteke.

Zehaztaper horiek guztiak hainbat aniztasuni erantzuteko oso onuragarriak izaten ari dira. Urtean zehar Hezkuntza Premia Berezia duen hainbat ikaslez arduratzea ere oso baliagarria izan da, irakasleek ikasleekiko duten sentiberatasuna eta entzuteko jarrera areagotu egin baitu, eta horrez gain, esperientzia berriak praktikan jartzeko gero eta jarrera irekiagoa du, prestakuntza teorikoaren eta informazio berriaren beharra sentitzen du, hausnarketa egiten du: behatzen duenari buruz, praktikan sortzen diren zailtasunei buruz...

HEZKUNTZA-LANEAN:

Hona hemen, gure Ikastetxeko ikasleen aniztasunari erantzun egokiagoa emateko asmoz, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan erabiltzen ari garen hezkuntza-esperientziak. Horietan guztietan erabiltzen dira hasieran aipatu ditugun estrategia orokor, erlaziozko eta metodologikoak:

Lantegiak:

Hasieran HPBak dituzten ikasleengan pentsatuta prestatu ziren, talde-kopuruak txikiagoak baitira eta bi irakasle batera baitaude talde berarekin. Ondoren, taldekatze horren bitartez garatzen diren helburuak ikusita (ikasle guztien arteko harremanak ahalbideratzen dira, lan-erritmo desberdinak errespetatzen dira, laguntza norberaren gaitasunaren arabera ematen, eskaintzen edo eskatzen da, motibazioari eusten zaio...), eta sistema honen bidez beste mota bateko aniztasunari erantzun dakiekeen uste sendoaz, gainerako zikloetara hedatu zen. Gaur egun talde hauentzat daude antolatuta:

Haur Hezkuntza: 4-5 urte.

Lehen Hezkuntza: 1, 2 eta 3. zikloa.

Lantegi edo tailerren bidez garatu nahi diren **helburu orokorrak** hauek dira:

- Hainbat maila eta ziklotako ikasleen arteko harremana bultzatzea.

- Motibazioa, talde-lana, laguntza sustatzea.

- Askotariko trebetasunak garatzea, baita proiektaturiko zeregina ongi burutzera eramango duten estrategiak erabiltzea ere.

Honela, azkenera iritsi arte zertzen dituzten ekintza guztien arteko lotura ikusteko gaitasuna garatzen dute neska-

mutilek, prozesu osoa burutzeraino egindako urratsen sekuentziazioa ikusten dute.

- Euskararen erabilera bultzatzea ohiko ikasgelatik kanpo, komunikazio-egoeretan, talde txiki nahiz handietan, deskribatzeko, esplikatzeko, argudiatzeko, proposatzeko...

Antolaketa:

Ikasturtean bi eratako lantegiak antolatzen dira:

- Ikastetxean egiten diren ospakizunetakoren bat prestatzekoak: Gabonetako jaia eta Inauteriak.

- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako taldeetako bakoitzarentzat berariaz antolaturiko lantegiak.

Haur Hezkuntza:

Sorkuntza-lantegia

Plastilina-lantegia

Jolas-lantegia (mahaikoak, kalekoak)

Eraikuntzako lantegia

Sukaldaritzako lantegia

Lehen Hezkuntza:

1. zikloa: Modelaketa, jolasak eta eskulanak.

2. zikloa: Zeramika, plastika, informatika eta jolas matematikoak.

3. zikloa: Sukaldaritzak, margoketa, informatika eta marrazketako lantegiak.

Bi modalitate horiek dituzten puntu komunak:

- Egin nahi den proiektua aurkeztea: Beti proiektu bat proposatzen da, azkeneko egin beharreko zerbait. Lantzen diren edukiak, batez ere, jarrazkoak eta prozedurazkoak dira, eta euskarari, ingurunearen ezagutzari eta arte-adierazpenari buruzkoak. Adibidez: "Inauterietako moztorro-jantzia prestatu behar dugu. Horretarako, bakoitzak egokiena iruditzen zaion moztorra proposatu du, deskribatu egingo du eta egiteko urratsak esplikatu ditu, eta egiteko behar diren materialen zerrenda egin ere bai". Taldean botorik gehien hartzen duen moztorro-jantzia aukeratuko da.

- Guztiek errespetatu beharreko arauak erabakitzea: materiala egoki zaindu eta erabiltzea, osatuko diren taldeen ezagutza: haur-kopurua, maila desberdinetakoak izatea... erantzukizunak banatzea...

- Proiektua zertzeko erabiliko den ekitaldi-kopurua.

- Zertu beharreko zereginaren sekuentziazioa, eta azkeneko iristeko egin beharreko ekintza edo urratsak zehaztea.

Bien arteko aldeak:

- Ospakizunetarako antolatzen diren lantegietan:

* Zeregina talde/lantegi bakoitzean banatzen da. Batean moztorro-jantziak diseinatuko dira. Bestean dekoratua. Bakoitzak egiten duena ez da beretzat, taldea osatzen dutenentzat baizik, ospakizun-egunean batera parte hartuko dutenentzat.

* Talde bakoitzak besteari azalduko dio zer-nolako informazioa izan duen, bere zeregina (moztorro-jantzia, dekoratua...) burutzeko egin dituen urratsak. Guztiek irakasten eta ematen diete zerbait berria besteei.

* Azken produkzioaz, azken emaitzaz, Ikastetxeko ikasle guztiek gozatzen dute. Guztiek ikusten eta balioesten dute talde eta ziklo bakoitzak egindako lanaren emaitza.

- Berariazko lantegietan: prozedura berbera izan arren, emaitza bakoitzarena da, bakoitzak egiten duena bere etxera eramaten du.

Gai monografikoa

Taldekatzeak: Era askotara egiten dira:

- Lehenik, ziklo bakoitzean, maila bakoitzeko ikasleekin, irakaslearen proposamenari jarraituz, edo ikasleek aske aukeraturuta, ikastalde bakoitzaren ezaugarrien arabera, bi talde heterogeneo handi sortzen dira. Horiek osatzeko gutxieneko taldeak: kopuru egokia talde bakoitzean, parte-hartze ekitati-boa mutil eta nesken artean...

- Gero, talde bakoitzean, planteaturiko ekintzaren arabera, sortzen da: talde handia, talde txikia, binakakoa...

Talde horiek osatzean kontuan izan: bakoitzaren lan-eritimoa, motibazioa, bere zereginen izan dezakeen zailtasuna...

HPBetako ikaslea talderen batean sartzen da eta dagokion zeregina betetzen du, batzuetan besteen laguntzarekin, eta beste batzuetan berak besteei lagunduz zerbaitetan. Normalean esleitzen zaion zeregina, ahal dela, funtzionala izaten da, beste testuinguru eta egoera batzuetan baliagarri gertatzeko modukoa.

Irakasleak: Lantegi-motaren arabera, irakasleek ere antolaketa bat edo bestea izaten dute:

- Ospakizunak prestatzeko antolatzen diren lantegietan, bi irakaslek hartzen dute parte aldi berean lantegi bakoitzean. Estrategia hau positiboki baloratzen da, irakasleei zera suposatzen baitie:

* Koordinazio estua zehazteko: ikasleengan sustatu, erabili eta garatu beharreko arauak, jarrera eta balioak. Baita lan-eritimo desberdinei erantzuteko erabiliko dituen estrategiak zehazteko ere, edo banaka nahiz taldean parte hartzeko modua... kasu bakoitzean zertu beharreko papera (batzuetan dinamizatzailearena, agente aktiboarena; beste batzuetan zailtasunak dituen ikaslearen laguntzailearena...)

* Iritziak trukitzea, eta ikasle bakoitza hobeto ezagutzea.

* Ikasle guztiei eta bakoitzari arreta handiagoa eskaintzea. Honek irakasle bakoitzaren papera, esku hartzeko bere modua aurrez erabakitzea eskatzen du: adibidez, bere zereginen zailtasunak dituelako laguntza handiagoa behar duen ikaslearekin dagoen bitartean irakasle bat, bestea taldearen gainerakoari laguntzen ari da. Laguntza-mota horiek gauza desberdin gisa ez hartzeko, bi irakasleen rola trukatu egiten dira.

* Bestalde, ikasleek beren premiak asea ikusten dituzte, irakasle batengana edo besteagana jo dezakete, beraiek gura bezala.

- Berariazko lantegietan: taldeak txikiagoak dira eta irakasle bat arduratzen da talde bakoitzaz.

Proiektuak:


- Ikuspegi orohartzailea dute, helburu bikoitzaz:

Alde batetik, haurren planteamendu integrala kontuan hartzea, bere osotasunean. Eta horren bidez berak ezagutzeko, mugitzeko eta gizartean moldatzeko dituen gaitasunak landu nahi dira.

Beste aldetik, arloko diziplinarteko izaera, horien arteko lotura aurkeztea. Aurkezten den proiektuaren arabera, hona hemen erlazioaturiko arloak: euskara eta ingurunearen eza-guera edota euskara, arte-adierazpena eta ingurunearen eza-guera.

Horien bidez, jarrerazko, prozedurazko eta kontzeptuzko edukiak lantzen dira.

Ikaskuntza funtzional eta esanguratsua ahalbidetzen dute. Horregatik, beti hartzen dira abiapuntu gisa haurren aurretiaz-



Luis Elejalde ikastetxea



Luis Elejalde ikastetxea

ko ezaupideak. Eta horiei proiektua aurkezten zaie.

Gure Ikastetxean, proiektuen garapena honela ari da egiten:

Haur Hezkuntzako hiru mailetan.

Zertzen diren zeregin askoren abiapuntu dira. Aurkezten diren proiektuak Ikastetxeko bertako irakasleek eginak dira, haurren interesak abiapuntutzat hartuta. Eta garapena hiru aldiotan egiten da beti:

1) Proiektuaren, egin beharreko zereginaren aurkezpena.
2) Motibazioa, neska-mutilen aurretiazko ezaupideak aktibatzea. Egoera hau lagungarri gertatzen da haurrak gogora dezan dakiena.

3) Informazio berria ematea, ikasleak hartutako informazioa aurrez dakienarekin lotu dezala, galderak egin, esplikazioak eskatu eta proposamenak egin ditzala...

4) Zereginaren, proiektuaren sekuentziarioa: lan txikiak eginez proiektuaren azken burutzapena arte.

Horretarako, hainbat ekintza kateaturik aurkezten da, batzuetan talde handitan egitekoak, beste batzuetan talde txikitik eta batzuetan banakoen mailan ere bai.

5) Zereginaren, proiektuaren ebaluazioa: bi aldaera kontuan hartuta egiten da: ikasle bakoitzaren arauketa, eta talde osoarena. Haur bakoitzak ere bere arauketa propioa egiten du, sentitutakoaren arabera: zaila edo erraza iruditzen zaion, gustatu zaion ala ez...

- Taldekatzeak heterogeneoak izaten dira, nahiz eta puntualki aldaeraren bat kontuan hartzen den: lan-erritmoa adibidez, eta zereginaren arabera talde homogeneoagoetan antolatzen dira.

- Zeregina taldean egingo da. Nahiz eta adin hauetan kostatzen den honelako lanetan dagoen elkarrekiko mendetasunaz ohartzea, lankidetzaren sustatzen da: haurraren laguntzeko eta besteaz arduratzeko eta bere parte-hartzearen garrantziaz jabetzeko gaitasuna sustatzen duen lankidetzaren alegia, horri esker ikasi egiten baitu besteak.

- Lehen Zikloa:

Proiektuak bitartekoak, lanabesak dira hizkuntza —euskaraz— lantzeko, ingurune fisiko eta sozialaren ezaguerarekin batera.

Zertzen diren proiektuak: batzuek testuliburutik abiatzen dira, non batera aurkezten diren aipaturiko bi arloak. Zikloko irakasleek eginak dira, sortzen diren egoerak zabaltzeko, osatzeko eta horiei erantzuteko, horien bidez betetzen delarik zeregina. Adibidez: erromeria bat, izotz-pistara joan eta han jardutea, ikasturte-amaierako irteera... Horiek gauzatzeko kontuan hartzen diren aldi edo faseak Haur Hezkuntzako berberak dira.

- Egin beharreko zeregina banaka nahiz taldeka betetzen da. Azken kasuan, lankidetzaren bultzatzen da. Azken emaitza taldearena da.

- Egiten diren taldekatzeak heterogeneoak dira. Binaka ere egiten da lan.

- Bigarren eta Hirugarren Zikloa:

Lehen zikloan bezalaxe, proiektuak bizi izandako egoera edota esperientziei erantzuteko egiten dira.

Ikasteko zailtasunen bati erantzuteko ere egiten dira. Adibidez, hirugarren zikloko bigarren mailan, irakurmenean ikasle batzuek dituzten maila edota erritmo desberdinei erantzuteko.

Gai monografikoa

teko proiektuak prestatu dira: "Itsaslapurrei buruzko ipuin bat idatziko dugu", "Komiki bat egin eta idatziko dugu".

Horretarako, eta alde batetik, ikasleek irakurri, informazioa bildu, datuak jaso, adostu eta gaiari buruzko testu bat prestatu beharko dute. Bestalde, ipuinaren, bere egituraren... berezitasunak ezagutu beharko dituzte, eta horren arabera ipuin bat idatzi. Azken emaitza desberdina izango da taldearen ezaugarrien arabera. Lan-sistema aurrerago —taldekatzen atalean— zehaztuko den bezala egingo da.

Landu beharreko edukiak jarrerazkoak, prozedurazkoak eta kontzeptuzkoak dira. Eta arloak hizkuntza —gaztelania— eta ingurunearen ezauguera.

Azkenik, esan behar da Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako lantegietan zertu beharreko lana irakasleek horretarako egindako proiektuen bidez aurkezten dela.

Taldekatzeak

- Banaketak:

Bi ikastalde handik —gela bakoitzean 25na— dituzten lan-erritmo, motibazio eta gaitasun-aniztasunari erantzun ahal izateko, taldekatze-mota hau egokia zela pentsatu zen.

Horregatik, talde bakoitza zenbait arlotan (matematikak, hizkuntza, ingelesa, musika eta gorpuz-hezkuntzan) bitan banatzen da. Taldeon osaera heterogeneoa da. Hone-la, zera bultzatu

nahi da:

. Irakasleentzat: banan-banako arreta handiagoa eskaintzeko aukera, irakatsi eta ikasteko prozesuaren eraginkortasuna gehitzea, ikasle bakoitzarekin harreman edota elkarrekin-tza handiagoa izatea.

. Ikasleentzat: lanaren aurrean motibazio handiagoa, ziurtasun handiagoa eta irakaslearekin eta ikaskideekin kalitatezko harremana.

- Talde malguak:

Taldekatze-mota hau hirugarren zikloko maila bereko bi gelatako ikasleei erantzun ahal izateko aukeratu zen.

Hona hemen bi talde horien aniztasuna: Alde batetik, arlo instrumentaletan ikasteko eragozpenak dituzten ikasleak: Matematikak (problema planteatu eta ebatzea, kalkulua, eragiketak, ariketa logiko-matematikoak) eta Hizkuntza (irakurketa ulerkorra, ortografi arauen erabilera zuzena, ahozko eta idatzizko adierazpena).

Beste aldetik, ikasle batzuek ikasteko dituzten jarrera negatiboak zuzendu nahi dira: motibaziorik eza, lan-erritmo apala, ziurtasunik eza, pasibotasuna...

Horretarako, ordutegiaren, ikasgelaren eta arloetako programazioaren antolaketa aldatu zen.

- Ordutegiari buruz: ordutegi berria antolatu zen, eta hor talde malguetarako behar zena ezarri zen, baita arlo bakoitzari eman beharreko saio-kopurua ere.

- Ikasgelaren antolaketari buruz: Bi gelatako 32 ikasleekin, hiru talde heterogeneo osatu ziren, bakoitza espazio/gela desberdin batean kokatuz. Talde bakoitzaren ardurak Ikastetxeko bi tutoreek eta aholkulariak hartu zuten beren gain.

Aurreko esperientzietan bezalaxe, ikasle-kopuru murriztua izatean, banan-banako erantzuna eman nahi zaie, irakatsi eta ikasteko prozesuaren eraginkortasuna areagotu, ikasteko zailtasunak dituen ikasle bakoitzari lana egokitu, eta kalitate handiagoko harreman/elkarrekin-tza lortu.

Malguak izateak osakideen mugikortasuna adierazten du, ezarritako helburuen edukiaren edota lorpen-mailaren arabera, talde bakoitzak aldatu egiten baitu bere osaera eta osakideen kopurua.


Talde bakoitzaren barruan beste talde batzuk osatzen dira, landu nahi den helburuaren arabera:

- **Homogeneoak**: Hizkuntzako alderdi jakin bat lantzeko planteatu zen, irakurmena lantzeko, zehatz esanda. Taldean egiteko proiektuak prestatu dira, zailtasun-maila desberdinekoak. Horretarako hiru talde osatu dira, irakurketaren aurrean ezaupide, neke eta jarrera-maila desberdinak dituztenak. Lan-erritmoa ere desberdina dute.

Honela, dauden desberdintasunak ez nabarmentzea lortu nahi da, talde bakoitzak bere gaitasunaren eta erritmoaren arabera lan egin dezan lortuz. Ekintza-mota, bakoitzak hartzen duen laguntza, kontsulta-materialak... desberdinak dira.

- **Heterogeneoak**: Talde homogeneoen osaerarekin konbinatzen dira. Horien bidez matematika- eta hizkuntz arloetako kontzeptuak lantzen dira. Jarrerak ere lantzen dira, imitatu beharreko eredu proposatzen da, lortu beharreko erronka bat aurkezten da.

Ikasleen arteko harremanak eta erantzukizuna indartzeko lankidetzak edo **lan kooperatiboak** bultzatzen dira. Horretara-



Iuiss Elejalde ikastetxea

rako, irakasleek lana prestatzen dute, bakoitzak bere gaitasunaren arabera hartuko duen erantzukizuna, bakoitzak bestearen beharra senti dezan eta besteari esker ikasten duela ere ikus dezan.

- **Tutore-lana:** bikotekako lana: Bakoitzak bestea tutoritzatzeko aukera du. Honela, edukiak garatzeaz gain, autoestimua, norberaren irudi positiboa ere garatzen da.

- **Banakako lana:** Kasu honetan, bakoitzaren mailara egokitutako ekintzak aurkezten dira, banaka egin daitezten.

Taldekatze horiek egitean, kasu batzuetan **aldi berean bi irakaslek** parte hartzen dute ikasgelan. Estrategia horren abantailak jada aipatu ditugu lantegien esperientziaz hitz egiterakoan.

- **Arloetako programazioari dagokionez:** maila honetako ikasleek arlo batzuetan ikasteko zeuzkaten zailtasunetatik abiatuz, programazio berria egin zen.

Bertan agertzen dira:

- Lehenik, ikastaldearen ezaugarriak: maila, guztira dagoen ikasle-kopurua, taldearen ezaugarriak, orokorrak nahiz espezifikokoak, dagoen aniztasun-mota, indartu beharreko arloak, arlo bakoitzean landu beharreko alderdiak...

- Ondoren, programazio berria egiteko unera arte erabiliko metodologia agertzen da, erabili diren indartzeak, ikasteko zailtasunak zituzten ikasleei eskainitako laguntzak...

- Orduetegiaren antolaketa, indartzeko erabiliko den saio-kopurua, saio horietan parte hartuko duten irakasleen koordinazioa...

- Azkenik, agertzen dira:

* Helburuak:

Gutxienekoak, denek lortu ditzaketenak.

Ondoan, egokitutakoak idatziko dira.

Funtzionalak izango dira. Lortzekoak.

Gaitasun guztiak egongo dira, sozializazioa eta komunikazioa barne.

* Edukiak:

Oinarrizkoak. Lehentasuna dutenak. Kopuru egokia.

Hiru motakoak izango dira: kontzeptu, prozedura eta jarrerazkoak.

Ondoan, egokitutakoak idatziko dira.

* Jarduerak:

Denek egin ditzaketenak, indartze-neurriak, egokitu edo aldatu direnak ere idatziko dira.

Manipulazio-mailan egiten direnak ere eskainitako dira. Horretarako, laguntza-gelako materiala ere erabil daiteke.

Norberak zuzentzeko fitxak ere agertuko dira.

* Ebaluazioa: Eta hemen agertuko dira:

Erabiliko diren tresnak: behaketa, artxiboa, egunkaria.

Egingo den unea: programa hasterakoan...

Gutxienezko helburuak ere kontuan hartuko dira, ikasle bakoitzaren gaitasunei erantzungo dietenak.

Eredu gisa: "Behaketa eta ebaluaziorako arau-erregistroa", Grao argitaletxekoa erabiliko da.

Esperientzia horiek guztiak gauzatzeko, irakasleek hasieran aipatu eta IPC.n agertzen diren estrategia orokor, erlazioz-

ko eta metodologikoak erabiltzen dira.

ESPERIENTZIAK ZERTZEKO PRESTATU DIREN MATERIALAK

- **Programazio berriak:** Horietan sartu da aurretik azaldutakoa.

- **Artxiboa:** Ikasle bakoitzaren jarraipena egiteko, tutoreak eta aholkulariak "artxibo-koadernoa" izango dute. Bertan agertuko dira:

. Ikasle bakoitzari egokitutako programazioa.


. Bakoitzaren gurasoekin izandako bilerak: data, gaiak...

. Irakasleen artean egindako bilerak: data, partaideak, hartutako erabakiak...

. Egin diren egokitzapen berriak.

. Aurkeztu diren material-ereduak...

- **Gelan erabilizko estrategia-zerrenda:**



Luis Elejalde ikastetxea

Gai monografikoa

Harremanak bultzatzeko, portaerei erantzuteko, metodologikoak... Guztiak Ikastetxeko Proiektu Curricularrean sartutakoak dira.

- **Arlo bakoitzari dagozkion jarduerak** (manipulatzekoak, indartzekoak, norberak zuzentzekoak...).

- **Artikuluak, bideoak:** Aniztasunarekin eta gelako antolamenduarekin erlazionatuta daudenak.

GURASO ETA ESKOLAKOEN ARTEKO HARREMANAK

Ondo jakina da irakaslearen eta gurasoen arteko harreman, koordinazio eta lankidetzaren zein garrantzitsua den.

Horregatik, ikasteko zailtasunei erantzunez inolako indartze-neurririk hartu aurretik eta programazio berririk martxan jarri aurretik, hitz egiten da indartze jakin bat behar duen ikasle bakoitzarekin. Detektaturiko arazoak hitz egiten da, egin diren edo egin nahi diren egokitzapenez... Familiak ere informazioa eta bere iritzia ematen du. Iritziak edota informazioak trukatu eta alderatze horretan, irakasleak gelarako aldaketa-proposamenak eta alternatibak eskaintzen ditu, eman behar duen laguntza eskatzen zaio familiari...

Irakasleak bilerak prestatzerakoan gidoi bat erabiliko du, bertan honako alderdiak sartzen direlarik:

- Irakaslearen jarrera (bileran izango duena).
- Bileraren antolamendua:
 - . Agurra
 - . Bilerako helburuen azalpena
 - . Plana gurasoekin zehazteko baldintza
 - . Azken agurra.

Elkarrizketa, bilera bukatu ondoren, aipatutako artxiboan erregistratuko da.

ANTOLAMENDU HONI IKUSTEN DIZKIOGUN ALDE ONAK:

- Irakasleari dagokionez:

* Ikastetxeko eta ikasgelako antolaketa hobetzen da irakaslanerako nahiz koordinaziorako, talde-antolaketarako, programaziorako... ordutegia zehazterakoan. Gainera, antolaketa horrek guztiak detektaturiko kasuari berehala erantzuteko aukera ematen du, Haur Hezkuntzatik ere hasita. Bestalde, irakaslearen arteko koordinazioa ere ziurtatu eta bermatzen da. Horrek iritzi-trukea, jarduera eta estrategi erabilera batuago eta koherenteagoa errazten ditu.

* Giza baliabideak eta materialak optimizatu egiten dira.

* Horregatik, irakasteko eta ikasteko prozesuan eraginkortasuna areagotu egiten dela esan dezakegu, eta hori oso atsegingarria da irakaslearentzat.

- Ikasleei dagokienez:

Oro har, esan daiteke antolaketa honen bidez, irakasleak

aukera gehiago duela banan-banako irakaskuntza hartzeko. Irakaslearen eta ikaslearen artean eta kalitate gehiagoko ikaslearen artean harremana/elkarrekintza bultzatzen da.

TOPATZEN ARI GAREN ZAILTASUNAK:

Hona hemen irakasleak prozesu osoan aurkitzen dituen zailtasunak:


- Detektatu diren kasuei erantzuteko denbora asko behar da: bilerak egiteko, koordinatzeko; programazioa, proiektuak, hainbat jarduera prestatzeko...

Hori guztia aurrera eramateko dedikazio itzela behar da, ahalegin handia egitea, denbora asko erabiltzea.

- Horrez gain, esperientziak oraindik iraupen motza duenez, emaitza zehatzak ez dira ikusten; irakasleengan nekea, kezka eta zalantzak sortzen dira, eta batzuetan estrategia edota antolamenduaren balioa zalantzan jartzen da.

- Programazioak egokitzeko edota proiektuak prestatzeko ohitura falta da. Idazteko ere denbora falta da.

Ondorio gisa, ohartzen gara aniztasunaren trataerari buruzko bidean abiatu besterik ez garelako egin, eta oraindik zeregin handia, hobetzeko bide luzea geratzen zaigu. Hala ere, ematen ari den bilakaera baliagarria dela uste dugu, eragin positiboa baitute Ikastetxeko ikasle eta irakasleengan.



Luis Elejalde ikastetxea

Artatse: Ikasteko Elkarte

Ramón Flecha

CREA. Bartzelonako Unibertsitatea

Ikasteko elkarteak eskoletan hezkuntza-jarduera antolatzeke era bat da, irakasleak, ikasleak, familiak eta auzoko eta inguruko beste gizarte-eragile batzuk benetan konprometituz. Eta horien helburua ikastetxeko ikasle guztiek ahalik eta emaitzarik onenak lortzea da.


Hezkuntza-jarduera eraldatzeko prozesu hau Euskal Herriko lau ikastetxetan dago martxan, duela lau urte baino gehiago hasita. Artatse herri-eskola, Bilboko Txurdinaga eta Otxarkoaga auzoen artean dagoena, da horietako bat. Lorturiko emaitzak hasieran espero baino hobeak dira, eta horregatik gero eta gehiago dira beren ikasgelak eraldatu nahi dituzten Ikastetxeak, lagundu nahi duten guztiei atea irekiz.

Ikasteko elkartearen helburu nagusia gizarte-dualizazioa gainditzeko da. Ikasle guzti-guztientzat ahalik eta arrakastarik handiena lortu nahi dute eskolan. Beren jarduerak eskola-

porrota gainditzeko erarik eraginkorrenean antolatzen dute, eta ikastetxea elkarte aktibo bihurtzen dute, bertan partaide guztiek eman eta hartzen dutelarik informazioa eta ikaskuntza.

Artatse herri-eskolak, proiektuan sartu zenetik denbora gutxi igaro den arren, bide luzea egin du dagoeneko. Ondoren aztertuko ditudan hiru puntuak ARTATSE Hiren AMETSA dokumentuan agertzen direnetako batzuk dira, 1999ko ekainean onartu zen dokumentuan, alegia. Testu hori hausnarketa eta eztabaida-prozesu luze baten emaitza da, hezkuntza-elkarteke partaide guztien itxaropen, ilusio eta utopiei buruzkoa.

Elkarteak eskola-mota berri bat amesten du, ahalik eta sektore gehienaren arteko elkarriketa eta adostasunaren emaitza. Ikastetxearen eraldaketa-aldi hau funtsezkoa da, gura



Artatse Eskola

Gai monografikoa

diren eskola eta ingurunea tajutu eta amesteko balio izateaz gain, oinarriko gai batzuk agerian jartzen dituelako: itxaropen handiak, ilusioa eta errealitatea alda daitekeen uste sendoa.

Ikasleak

Hezkuntza-elkarteko talde nagusia ikasleek osatzen dute. Elkarte horren ahalegin eta ekintza guztiak neska-mutilen gaitasun pertsonalak garatzera bideratuta daude.

Ikastetxeak nahi du ikasleek beren buruaz ideia positiboa izatea, komunikatzen jakitea, beharrezko gizarte-gaitasunak izatea. Beraz, helburu horiek lortzeko moduan ari da ikastetxea bere jarduera antolatzen. Txikitatik orduak ematen dituzte informatikako gelan. Gela bakoitzak bere ordezkariak ditu, aldizka biltzen direnak. Animalia eta landareen arduranak ere badira. Edo birziklatzeko paperaren arduradunak...

Jarduera horiek dira zertzen direnetako batzuk eta ikasleentzako motibazioan eragiten dutenak: *ikasten eta pentsatzen ikasiko duten ikasleek, beren pentsamendua garatzean ezauzpeak eraginkorki erabiltzeko gai izan daitezten.*


Familien partaidetza

Eskola neska-mutilen sozializazioan eragiten duen elementuetako bat bakarra da. Ikasleek eragin eta mezu asko hartzen dituzte eguneroko bizitzan ikastetxean bertan eta kanpoan. Ikastetxearen arrakasta edo porrota elkarte, herri, ingurune osoaren kontua da. Familiak arazo gisa hartzeari utzi eta beraietan arazoaren konponbide posibleak bilatzen direnean, egoera aldatu egiten da. Auzoaren parte-hartzea, inguruko baliabideen erabilera hezkuntzarako oso lagungarri diren elementuak dira. Honela, hautsi egiten da ohiko dualtasuna, gela barruan eta kanpoan gertatzen denaren artekoa.

Inguruko mundua ulertu, bertan parte hartu eta eraldatzeko gai diren pertsonak hezitzea —horixe baita hezkuntza— ez da Hezkuntza Zerbitzuei soilik dagokien eginkizuna. Gero eta garbiago dago hezkuntza zeregin partekatua dela, non erantzukizun eta eragin-maila desberdinekin, familiak, eskola-erakundeak eta inguruko beste pertsona eta erakunde batzuek parte hartzen dugun, baita mass media edo komunikabideek ere.

Artatse ikastetxearen ametsan auzoko erakundeekin ere lankidetzat estua sartzen da. Horregatik, gizarte eta kultur ekintzak antolatzen dira, parte-hartzea bultzatzeko. Lankidetzat horren emaitza da ekintzen koordinazio handiagoa eta horien errepertorioa gehitzea.

Artatse Eskola



Irakasleak

Artatse HIKO irakasleek ikasteko prozesuaren dinamizatzaileak dira. Proiektuak berorien papera aldatu du. Maisu-maistra hutsak izan ordez, maisu-maistra eta zerbait gehiago izatera igaro dira. Horiek paper garrantzitsua dute ingurune-ko giza baliabide eta baliabide materialak bilatu eta koordinatzen, ikastetxean erabiltzeko. *Gizarte-trebetasunak behar dituzte, eskola, familia eta gizartearen artean bitartekaritza egiten jakiteko. Taldean lan egin, parte hartu, lagundu, antolatu eta koordinatzeko gai izan behar dute.*

Maisu-maistrek talde elkarreragileetan oinarrituz antolatu dituzte eskolak, parekideen arteko tutorizazioa indartzeko. Beren lana familiekin koordinatuta egiten dute. Honela, gehituz doa gurasoen parte-hartzea ekintza akademikoetan eta eskolaz kanpoan, neska-mutikoek hezkuntza elementu komunak izan ditzaten beren etxean eta ikastetxean.

Horiek dira Artatse Ikasteko Elkartearen gai nagusietako hiru. Ikastetxeko hezkuntza-praktika partaide guztiak eraginkorki inplikaturik eraldatzeak emaitzen hobekuntza dakar. Eta hori da ikastetxe honetan esperimintatzen ari garena. Ikastetxearen eraldatze-prozesua neska-mutilak inplikatzeko diren neurrian zertzen da, maisu-maistrek ahal duten guztia egiten dute ikastetxea beren seme-alabentzat aukeratu luketena bezalakoa izateko, eta gurasoek ere lagundu egiten dute eurek umetan ezagutu nahiko zutena bezalako eskola lortzeko. Gainera, ikastetxea irekita dago auzoko boluntario eta erakunde guztiengana.

Artatse:

Lan taldea

Artatseko Lan taldea

Artatse Haur eta Lehen Hezkuntzako Herri Ikastetxe bat da. Bilboko Otxarkoaga auzoan dago, eta bertan “**desberdintasuna**” da gure ezaugarrietako bat.

Ikastetxeko **ikasleak** gizarteko talderik behartsuenetakoa dira. Askotariko eragozpen eta zailtasunak dituzten familietatik datoz, eta familia barnean edota inguruan bizi duten egoeratik arrisku handikotzat jo daitezke.

Egoeraren azterketa orokor honek profil jakin bateko ikaslearen aurrean jartzen gaitu: motibazio urria dute, eta interes gutxi eskolako ikaskuntza eta zereginen aurrean, prestakuntzarako eta buru-prozesuak aberasteko oso pizgarri gutxi; familian itxaropen handirik ez dago ikaskuntzari begira, eta

atsedenik eza, elikadura desegokia, aisialdiaren kontrolik eza jasaten dituzte.

Ikasteko eta irakasteko prozesurako zailtasun bereziko egoera honetan kokatu behar da irakasleen klaustroak urteetan zehar egin duen etengabeko hausnarketa. Hezkuntza-berrikuntzarako hainbat proiektutan lan egin dugu, material curricularrak sortu ditugu, hainbat metodologia jarri dugu praktikan, betiere gure hezkuntza-lana hobetzeko asmoz gure ikasleek ahalik eta arrakastarik handiena lor dezaten.

96-96 ikasturtean gure proiektu handian —**Ikasteko Elkarteak** proiektuan— hasi ginen lanean.

Helburu nagusia ikaslearen itxaropena goratzea da, ikaskuntza bizkortuz. Abantaila gutxiko ikasleak ikasteko erritmo geldoagoa behar duen iritziaren kontra, erritmo horiek bizkortzea planteatu zen, eskolan arrakasta lortzeko ahalik eta baliabiderik eta metodologia-estrategiarik onenak erabiliz.


Benetako hezkuntza-elkarte batean funtsezkoa da familiek, irakasleek, irakasle ez diren langileek, ikasleek, boluntarioek parte hartzea; funtsezkoa da guztien parte-hartzea, taldean lan egitea. Oinarri-oinarrizko “**zuta-beak**” direlarik, aktore horiek helburuak adosten dituzte, eskola ideala “amesten” dute, eta amets hori benetan zertzeko antolatuta eta lankidetzan jarduten dute.

Proiektuak eskolan zenbait **aldaketa** egitera eramán gintuen:

- **Harrera-zerbitzua**, ludotekan, goizeko 9etatik 10etara; bi boluntarioen ardurapean, gurasoak lanera joan direlako zerbitzu hau behar duten ikasle guztientzat da.

- **Teknologia berriak**: lehen hezkuntzako ikasmaita guztiek dute astean saio bat informatikako gelan matematikak, hizkuntza, ingelesa, euskara eta ingurunearen ezagueraz lantzeko.

- **Lantegiak**. Ostiraletan hautsi egiten da ikasgela-egitura eta Lehen hezkuntzako biga-



Gai monografikoa

ren eta hirugarren zikloko ikasleak hainbat lantegitan elkar-tzen dira: artistikoa, ordenagailuak, marketeria eta birzikla-pena. Lantegi bakoitzaz bi irakasle eta boluntarioak arduratzen dira.

- **Artearen bidez ikasten.** Ostegunetan, lehen hezkuntzako lehen zikloko ikasleak Guggenheim museoaren arte-proiektua zertzen dute.

- **Ingelesaren ikaskuntza goiztiarra.** Ingeleseko eskolak lau urte dituztenetik ematen zaizkie.

- **Animaliak eta landareak.** Kanarioak haztea, ontzieta-ko arrainak, dortokak, landareak... zaintzea, eta bi antzara ere baditugu, duela astebete ekarrira. Honen helburua arauak sortzea da, erantzukizunak banatzea eta gure ikasleen agresibitate handia arintzea.

- **Osasunean hezitzeko proiektua,** heziketa afektibosexuala eta gizarte-gaitasunetan trebatzea.

Gurasoek aktiboki parte hartzen dute Ikastetxeko bizitzan. Komunikazioa errazagoa eta hurbilagokoa da, seme-alaben ikasketei buruz gero eta gehiago arduratzen dira, ikastetxeak ez baitie arazoak daudenean bakarrik deitzen, baizik eta beraiek Ikastetxean **egoten dira** irakasleekin ikasten (alfabetizatze eskoletan), guraso gisa prestakuntza hobetzen (eztabaida eta heziketa-taldeak), zereginak partekatzen, boluntario gisa lanean... guztiok irakatsi eta ikasi baitezakegu gauza asko.

Boluntarioak ikastetxeko bizitzaren parte dira, eta zeregin askotan laguntzen dute, egindako zerbitzuagatik jasotzen duten sari bakarria elkarte osoaren esker ona delarik.

Praktiketako ikasleak: hainbat Prestakuntza Zentrotatik eskatzen digute beren ikasleak aldi baterako hartzea praktikak egin ditzaten. Horien ilusioak, hezkuntza-munduan ahalik eta ongien murgiltzeko gogoak... bultzatu eta lagundu egiten digu geure eguneroko lanean.

Eguneroko bizitza Artatsen ez da inoiz aspergarria, beti gertatzen da "zerbait", ohikeria edo errutinatik ateratzen gaituena:

"Egun batean Valero agertu da (ikastetxeko neska-mutiko pila baten aitona), eta txatar bila zihoala topatu dituen bi antzara ekarri dizkigu, ez baitu zalantzarik izan Artatse dela hegazitxo horientzako lekurik onena; goizeko 9ak arte zain egon eta hegaztiak adoptatzea proposatu dio zuzendaritza-taldeari.

Beraz, berehala jarri da martxan "bi antzara zurtzen integrazio-prozesua". Abere eta Landare Proiektuko ordezkariak bilera egin dute. Hegaztiei izena bilatzeko proposamena egin da. Antzaren marrazkiak egin dira. Zer dira antzarak? Antzara horien bizitza eta etorkizuna. Zer jango dute? Nork eman-gio die jaten? Informazio zientifikoa bilatu da, informazioaren azterketa egin da gure esku dauden baliabide guztiak erabiliz (liburutegia, interneta, ordenagailu-programak), eta azkenean informazioaren argitalpena. Eta denok lanean".

Gure antzarak Rosalinda eta Federico dira.

Artatse Eskola



Irakatsaioak

Artatsen:

Iñaki Gonzalez eta Zigor Quintanilla

Irakasleak. Mondragon Unibertsitateko HUHEZiko ikasle ohiak

Gure giza ingurutik kanpo dauden esperientzia berrien nahiak eraman gintuen Bilboko Artatse eskolara. Nahi hauek hase-tuak izan ziren, bertan aurkitutako errealitatea Euskal Herrian gerta zitekeenik ez genuen uste eta.

Bertan aurkitu genuen egoera, bai haurrei eta bai familiei dagokionez, famili barneko eta inguruko zailtasunez bete zegoen; besteak beste: langabezia, drogak, gaixotasunak, familia apurketak, errekurso ekonomiko ezak eta zorrak.

Ondorioz, haur hauek motibazio eta interes gabezia handia dago ikasteko orduan. Haurrak emozionalki ezegonkorrak ziren eta hitzaren aurretik biolentziaz baliatzen ziren. Gainera, nabarmena zen izaten zuten lo falta eta elikadura desagokia.

Egia esan, lehenengo astea oso gogorra egin zitzaigun. Batetik, haurren jokabideen aurrean ez genekielako nola jokatu; bestetik, beraien beharrak zeintzuk ziren garbi ez izatean, ez genekielako nola erantzun.

Hasierako gure nahasmen hau, azkar hasi zen desagertzen, tutoreek zailtasun hauen aurrean naturaltasunez eta afektuz beteriko jokabidez erantzuten zutelako ikusi bainuenen. Honi esker, haurren beharrak zeintzuk ziren eta nola erantzun behar ziren ohartu ginen.


Haurrekin indibidualki lan egiteaz gain, garbi kusi genuen familiekin lan egitea beharrezkoa zela, eskolara soilik ez mugatzeko hezkuntza soziala eta intelektuala.

Aipaturiko alor honetan, Artatse eskolak instituzionalki, bolondresen laguntzaz, ikaragarriko lana egiten zuela ikusi genuen.

Klaustro guztiaren artean erlazio ona zegoen, eta harreman horrek proiektu hau indartu egiten du. Irakasleen arteko batasuna beharrezkoa ikusten dugu, haur hauekin lan egiteak desgaste psikologiko handia eskatzen duelako.

Esperientzia honi esker, haurren aniztasunez jabetu gara, eta irakasle bezala honen aurrean erantzun bat izaten ikasi dugu. Aipatu, klaustro eta eskola eredu egoki bat ezagutzeko aukera dugula.

Bukatzeko, esan beste kultura bat ezagutzeko aukera izan dugula, eta lerro hauen bitartez, eskerrak eman nahi dizkiegu haur hauei guztiari, gu geu aberazteaz gain, bizitzaz erakutsi diguten guztiarengatik.




Baliabideak

Eskutik Eskura


Bea Arregi

Mondragon Unibertsitatea Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea




Oraingoan, udaberria datorrela eta, loreak egingo ditugu

Kaixo lagunok! Hemendik aurrera zuekin izango nauzue eta, elkarrekin, gauza polit batzuk egingo ditugu.




Jarrituko ditugun pausoak honakoak dira:

1. - Begiratu ondo ematen dizkizudan ereduak eta ebaki nahi dituzunak. Lehendabizi anpliatu egin beharko dituzu, edo beste batzuk asmatu. Ereduak handitzeko fotokopiagailua erabili ahal duzu.




Jarraian erantsi handitik txikira. Errotulagailuekin marra batzuk eginez apain ditzakezu.




Baliabideak



2 - Lorearen kirtena egiteko eta gorputza izateko hartu ereduia ea lau bat kartulina moztu ondoren, erantsi bata besteari, eta jarraian lorearen atzealdeari.



3 - Hostoekin ere jarraitu ereduia, egin nerbioak errotulagailuz eta erantsi kirtenari.



Lore batzuk egiten badituzu, lorontzi batean jar ditzakezu. Horretarako esne kaxa bat hartu eta kartulina pusketekin apaindu.



Ea polita ateratzen zaizun!!
Gero arte.





**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEEN
FAKULTATEA

Mondragon Unibertsitatea
Dorleta, z/g
ESKORIATZA 20.540
Tel.: 943 71 41 57
Faxa: 943 71 40 32
Email: sarrera@huhezi.edu
www.muni.es

